

Hondakinen bilketarako lau lan tramitatzen

Konpostatuta, kai itxia eta bi garbigune / 2

Plazaola bide berdean 9,3 km egokitzen ari dira. Latasa-Irurtzun tartea 2018an / 12



Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala igandean jokatu da. Korrikalariak batera hasiko dira / 15



Ergoienako Eguna ospatuko da estreinakoz. Lizarragan izanen da ospakizuna bihar / 5

Etxarri Aranazko plaza hobetzeko proposamenak aztergai izanen dira ostegunean / 11

Altsasuko etheen % 4,4 besterik ez dute izena eman 5. edukiontzia erabiltzeko / 3

Tren-ardatzari buruzko ikuspegia emanen dute gobernuak eta Sustrai fundazioak / 7

Altsasuko Basaluzeko dorrea ondasun inbentariatu deklaratu dute, babesteko / 22

Erizainak ohitura osasungarriak eta prebentzioa sustatuko ditu ikastetxeetan / 12



Irurtzun helburu

Sakanako Bizikleta Eguna Ziorditik abiatuko da igandean, 09:00etan / 17

Hondakinen bilketarako lau lan tramitatzen

Sakanako Mankomunitateak Arbizuko hondakindegian egin behar diren konpostatze plantarako eta zamalanetako kaiko lanetarako eta Altsasu eta Ziordiko garbiguneetarako aurrekontuak onartu ditu. Lanak lehenbailehen hasi nahi dira.

SAKANA

Ibarreko erakundeak astelehen egindako bilkuran hondakinen kudeaketa egokirako lau lanei aurrekontua ezarri zien. Dagozkien deialdiak eta bestelako tramiteak egin ondoren lanak lehenbailehen hasi nahiko lituzketela esan digu David Oroz Alonsok, Sakanako Mankomunitateko presidentea.

Mank-en batzarrean onartutako lanen artean Arbizuko hondakindegian egiteko bi daude. Haietako bat konpostatze planta da, 70,4 x 25,4 metroko erakina izanen duena, eta aldamean materia organikoa pilatzeko tokiak. Berritako beharrezko sare guztiak jarri behar dira ere. Arbizuko hondakindegian lixibiatuen baltsaren eta zamalanetako kairen artean kokatuta egonen da. Planta horren kanpoko aldean egingen den porlanezko zelaian materia ibarreko materia organikoa pilatuko da, egituratzailerarekin nahastu eta xehetuko da. Ontzi plantara sartuko da. Urtean 3.000 tona konpost sortzeko gaitasuna izanen du. Haren lanak 855.848,92 euroko aurrekontua dute. Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planeko 565.850,53 euro horretara bideratuko dira eta Nafarroako Hondakinen Partzuergo ko beste 141.462,63 euro ere.

Arbizuko hondakindegiko zamalanetako kaian kamioien gabarrak sartu eta bertan hondakinez kargatzen dira tratamendu plantetara eramateko. Plastikoen kasuan, gabarrak kargatzerakoan, haizeak eraman egiten ditu eta hori eragozteko kaia erabat itxiko da. Horretarako, egungo eraikinari 102 metro karratuko beste eremu bat gehituko zaio (20,4 m fatxada, 5 m zabal eta 8 metro altu) eta atekin itxeko aukera izanen da. Aurrefabrikatutako hormigoi armatuz egingen da eraikin be-



Ziordiko eliz atzeko kalean kokatuko da garbigunea. Goian, zamalanetako kaia.

rria. Lanen aurrekontua 125.065,2 eurokoa da.

Bestalde, garbiguneen bidez ingurumenarendako bereziki arriskutsuak diren hiri hondakinak berezirik jaso nahi dira, eta halakoak edozein tokitan ez botatzea gomendatzen dute. Gainera, hondakin horietako asko berrerabili, birziklatu eta balorizatzeko aukera dago. Sankandarrak hondakinen gaikako bilketan laguntzeko, bai Altsasun bai Ziordian eraikiko diren garbiguneetan hondakinak sailkatuta jasoko dira eta han denbora tarte batez egonen dira, Hondakinen Zerbitzuak dagokien tratamendu plantara eraman arte. Bi garbigune horien lanak Mank-ek Toki Azpiegitura Planeko 56.082 euroekin eta Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren 248.001,03 euroko diru-laguntzarekin ordainduko ditu.

Altsasuko garbigunea

Udalak Pilotajauku dermionan duen biltegiaren ondoan egingen da garbigunea, bidea bitan banatzen den tokian. Hiruki formako espazio bat hartuko du. 917 metro karratuko larrea da eta hara sare guztiak eraman behar dira: urarena, sanea-

mentu sarea, euri urak jasotzekoa, argindarrarena eta telekomunikazioena. Aurrefabrikatutako porlanezko moduekin egingen da garbigunea eta barruan edukiontziak eta bidioiak izanen ditu. Kanpoko aldean edukiontzi batzuk jarriko dira ere, esaterako inausitakoa jasotzeko. Ingurua itxita izanen du, ibilgailuak sartzeko lau ate izanen dira eta oinezkoendako bakarra. Lanek 310.773,02 euroko aurrekontua dute.

Altsasuko garbigunean etxean sortutako hondakinak jasoko dira bakar-bakarrik, honako hondakinak: pintura produktuak (pintura tubo eta poteak, disolbagarriak, dekapatzaileak...), ibilgailuen produktuak (olioak, bateriak, iragazkiak, izotzaren kontrakoak eta bestelako likidoak), bestelako produktu bereziak (fluoreszenteak, ibilitako olioak, pilak, aerosolak, zerak, barnizak eta bestelako garbiketaprodotuak), bestelako hondakinak (etxetresna-elektriko txikiak, arropa, egurra, jostailuak...), aparailu tekniko eta elektronikoak edota tamaina handikoak (altzariak, tresneria, obra txikietako hondakinak eta abar).



Ziordiko garbigune txikia

Elizaren iparraldean, atzean dagoen kalean egingen da garbigune txikia. 388 metro karratu izanen ditu eta 30 metro bider 3 metroko itxitura izanen du. Bultzatzearekin zabaltzen diren lau ate izanen ditu garbiguneak. Eta barruan lau edukiontzi izanen ditu eta bakoitzean hondakin mota bat jasoko da: inausitakoa, altzariak, etxetresna-e-

lektrikoak eta obra txikietako hondakinak. Etxetresna-elektrikoak 4 x 2 metroko txapazko edukiontzi itxi batean jasoko dira, gainontzeko hiru hondakinendako edukiontzi ireki bana izatea aurreikusten da.

Sor litezkeen hondakin-urak jaso eta saneamendu sarera bideratzea aurreikusten da ere. 64.427,44 euroko aurrekontua izanen du.

DISFRUTA EN EL EUSKALTEGI GOZATU EUSKARA!

Ver vídeo Bideoa ikusi

Matricúlate Izena eman ezazu

Información sobre los centros y ayudas económicas:
Euskaltegi eta laguntzei buruzko infomazioa:

948 012 012

www.euskaraikasi.nafarroa.eus
www.aprendeusquera.navarra.es

Antolatzaileak/Organizan
Udalak/Ayuntamientos: Aoiiz/Agaitz, Arsoain/Arsoain, Aranguren, Valle de Arce/Artzibar, Villava/Atarabia, Auritz/Burguete, Barañain, Basoburua, Berriplano/Berriobeit, Berriozar, Burlada/Burlata, Valle de Egüés/Eguesibar, Erro, Esteribar, Etxauri, Galaz, Puente la Reina/Gares, Imotz, Pamplona/Iruña, Estella-Lizarrak, Luzaide/Valcarlos, Oñate, Cendea de Olza/Olza Zendea, Orkoien, Tafalla, Huarte/Uharte, Ultzama, Zizur Mayor/Zizur Nagusia. Merikomunitateak/Mancomunidades: Sakanako, Iruñerria/Iruñerria, Valdezcarbe/Izarbeibar, Batzorde Nagusiak/Juntas Generales: Aezkoa, Roncal/Erronkari, Salazar/Zaraitzu.

%50

Mank
sakanako

Subvención
50% de la matrícula

Diru-laguntza:
matrikularen %50

Más información / Informazio gehiago:
Sakanako Mankomunitateko
Euskara Zerbitzua 948 464 840
Itsasi euskaltegia 948 468 258



Altsasuko etxebizitzaren % 4,4 besterik ez du izena eman 5. edukiontzirako.

Bosgarren edukiontzia udazkenean jarriko da

Izena emateko: lokomotoran, asteazkenetan, goiz eta arratsaldean edo 900 730 450 doako telefonoan.

ALTSASU

Izena eman nahi duenak Baratzekobide plazako lokomotoran informazio bulegoa zabalik du asteazkenetan, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. 900 730 450 doako telefonoaren bidez izena emateko aukera dago ere. Bakarrik etxebizitzaren %4,4k eman du izena oraingoan.

Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak azken herri horretako materia organikoa jaso eta kudeatzeko 5. edukiontzia jartzea adostu zuten. Baita helburua zehaztu ere: urte akaberarako gaikako bilketa egungo % 27tik % 65era igotzea. Bosgarren edukiontzian materia organikoa botatzea borondatezkoa izanen da eta hala egin nahi duten altsasuarrek izena eman beharra dute. Baina oso altsasuar gutxi eman dute izena. Bi erakundeen ar-

teko hitzarmenak aurreikusten du Altsasun dauden 3.767 etxebizitzetatik 2.260k izena eman beharko luketela (% 60) eta soilik 166k eman dute izena (% 4,4). Horregatik, bi erakundeek helburua 2018ko abenduaren 31rako lortzea adostu dute.

Bai Mank-en bai Altsasuko Udalean kezka ikusi dute herritar gutxi izena ematea eta guztiek ere espero dute 5. edukiontzia kalean ikustean hura erabiltzeko izen emate gehiago izanen direla. Hala jakinarazi digu David Oroz Alonsok Sakanako Mankomunitateko presidentek. Etxean sortzen diren hondakinen % 40 materia organikoa dela kontuan izanda bi erakundeek jarritako helburua lorgarria da. Gainera, Europako Batasunak 2020rako etxeko hondakinen gaikako bilketa gutxienez %50ekoa izan behar duela jakinarazi du.



Ibarreko alkate eta zinegotzi talde bat euskaltegian matrikulatzera gonbidatuz.

Udal ordezkariak euskara ikasteko kanpainarekin bat

Euskara ikasten duten helduei Mank-ek matrikularen % 50eko diru-laguntza ematen diela gogorarazi dute.

SAKANA

Nafarroako Gobernuak eta Sakanako Mankomunitatea eta beste 31 toki erakundeek, euskaltegiekin elkarlanean, helduek euskara ikas dezaten bultzatzeko kanpaina bateratua egin dute. Sakanako hautetsiak ere kanpainarekin bat egin dute.

Haren helburua da helduak animatzea euskara ikasten has daitezen edo ikasten segi dezaten, zabalik den matrikulaldia aprobetxatuz. Azpimarratu nahi da, batetik, euskarak kulturaz eta harreman sozial eta laboralen esparru osoaz gozatzeko ematen dituen aukerak, eta, bestetik, euskaltegiak eta ingurune sozial euskaldunak pertsonari ikaskuntza arrakastaz bukatzeko ematen dion laguntza.

Sakanan eskaintza zabala

Sakanatik atera gabe, euskara ikasteko aukera eskaintzen du

AEK-ren Itsasi euskaltegiak. Dagoeneko 18 euskara talde daude. Altsasun maila guztietako taldeak daude. Irurtzunen, Arruazun eta Etxarri Aranatzaren badaude taldeak. Autoikaskuntzaren aukera ere bada. Oraindik ere bada izena emateko aukera. Informazio gehiago: 948 468 258 telefonoan edo sakana@aek.eus helbidean.

Edozein arrazoirengatik Sakanak euskara ikasi ezin dutenek Nafarroan hogeita hamar euskaltegi baino gehiago dituzte, urtetan metatutako esperientzia zabala eta askotariko metodologia dutenak. Halaber, asko dira modalitate eta klase-eritmo presentzialak nola autoikaskuntza programak, helduen beharrei eta ikasteko duten denborei malgutasunez egokituak. Euskaltegiei eta diru-laguntzei buruzko informazio gehiago: www.euskaraikasi.nafarroa.eus.

Udalerrri euskaldunetako gazteen topaketak

UEMAk 15-18 urte arteko gazteei zuzendutako eskaintza antolatu du Orion, lastailaren 20-22an

ARBIZU /ETXARRI ARANATZ

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) antolatutako topaketan gazte arbizuarek eta etxarriarek parte hartzeko aukera izanen dute. Salto! topaketaren helburua da udalerrri euskaldunetako gazteek elkar ezagutzea eta beraien artean euskara oinarri hartuta saretea da asmoa. 15 eta 18 urte arteko gazteak bilduko dira topaketetan, eta hiru egunetan hainbat ekimen eta ekitalditan hartuko dute parte lagunartean, begirale eta sukaldariek batera.

Gazteendako aisialdi eskaintza horrekin UEMAK gazteak euskal hiztun gisa sentsibilizatu, kontzientziatu, aktibatu eta ahaldundu nahi ditu. Azken batean, euskaraz bizi diren gazteek inertziaz kontzientziarako saltoa ematea eta horrekin efektu biderkatzailea sortzea da helburuetako bat, euskararen lurgunea hedatzen jarraitzeko.

Izen emateko hiru bide

UEMAren sare sozialetan gurekin harremanetan jarrita, @uema_eus. Telefonoz: 943 816 699. eta e-postaz: hezkuntza@uema.eus. Lastailaren 9ra arte eman daiteke izena eta 30 euro balio du.

Ostiralero SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Gaurko gaiak:

- Joseba Imaz Berastegirekin
Ergoienako Egunaz
- Anaitz Igoa Goñirekin
MarraziOak topaketaz
- Pili Rellan eta Juakina Zubiria
AEKko ikasleak

Esataria: Eneida

107.3 FM
beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Catalunya, per sempre més

Amaitu berri den udan bitan egokitu zait Bartzelonara joatea eta hainbat egun eman ditut bertan, batzuk atentatuaren aurretik, besteak ondoren, denak erreferendumaren ekaitzaren barnean. Horrexegatik, beharbada, arreta handiz behatu ditut bazterrak, ibilian, ez metro, ez bus. Hiri handia, egunerokotasunaren zirimola bizian murgildurik.

Guztiaren artean, Montjuic-ek utzi dit arrastoa. El Poble-sec auzotik abiatuta, Joan Brossa parke labirintikotik kaskoraino. Hor, zeru urdinaren azpian, auzoak, orratz-etxeak eta durunda alde batera; itsasoa, kaia eta industrialde zaratatsua bestera; eta mendiari gailurra eginez, Montjuic-eko gaztelua.

Eraikin historikoaren edertasunaz gain, Kataluniaren eta Bartzelonaren historiaren erakusketa bikaina. Hor, datu batek eman zidan arreta: hainbatetan izan da Bartzelona suntsitua, eta bitan bortizki bonbardatua. Azkena, 1938an, errepublikaren alde borrokatzeagatik, Frankoren aliatu Mussolini italiarraren aginduz, ia mila hildako eta berrogeita zortzi eraikin suntsituta eta 80 larriki kaltetuta. Aurretik, karlistaldiaren garaian, 1842an, Esparteroren aginduz, ehungintza-industria babestu nahi zuten

herritarren altxamendua zapaltzeko, 104 proiektil, 30 hildako, 460 etxe hondatuta, eta, ondorengo errepresio bortitzean, ehundik gora fusilatu.

Orduantxe bota zuen Esparterok bere esaldi ezaguna "Bartzelona, gutxienez, berrogeita hamar urtetik behin bonbardatu behar da".

Kataluniako erreferenduma dela eta, Rajoyk, Saenz de Santamariak eta Maza fiskalak "beharrezkoa dena" hitzei jarraikiz, autonomia interbenitu eta parlamentarioak eta zinegotziak inputatzen ari dira. Tankera horretako neurriek ez ote darie ideario esparteroarraren kiratsa?

Konkista, inposaketa eta bortizkeria. Horrexegatik, herri batek era baketsuan eta askean burujabe izateko zilegitasuna duelako, ezin besterik aldarrikatu: Visca Catalunya lliure!

HARA ZER DIEN

0 km PREST GAUDE

SARE

Euskal Herriak azken hamarkadetan bizitako biolentzia ezberdinek ahalegin kolektibo bat egitera garamatzate, bestela faltsuki eta bermerik gabe itxiko bailizateke urtetako sufrimendu eta konfrontazioa. Eta hori da, SARE herritarrak ere duen egitekoa.

Lan hori euskal jendartearekin batera egin nahi dugu, ideologia ezberdinen gaintetik, elkarbizitzaren beharra sumatzen dutenekin. Jendarteak egoera hau gainditu nahi du, eta, jakina, beharrezkoa da borondatea, arrazoi desberdinak tarteko, min handia eragin duen historia ixtea baita asmao. Zalantzarik gabe, garai berri

baten aurrean gaude, bakegintzan, elkarbizitzan, giza eskubideen errespetuan eta konponbidean pausoak ematea exijitzen duen egoera berrian. Horregatik abiatu dugu 0Km, biolentziak eragin duen ondorio guztien konponbidea bilatzen duen kanpaina, eta dekalogo honen bitartez zure atxikimendua eta konpromisoa eskatzen dugu:

1. Kultura kolektiboan laguntza ematea, alde anitzetako memorien ariketa baten bitartez.
2. Elkarbizitza eraikitzen laguntzea, normaltasun sozial, politiko eta bakerantz.
3. Larriki gaixorik dauden presoak eta adinekoak kaleratzea, baita arrazoi

politikoengatik espetxeratuak gizarteratzea ere.

4. Salbuespeneko legedia bertan behera gelditzea.

5. Tortura edo tratu iraingarrien salaketa duten sententziak berrikustea.

6. Euskal alderdi politiko, sozial zein sindikalek erabakiak hartu eta adostea Espainiako Estatuko instantziei aurkezteko.

7. Presoen itzulerari buruzko adostasun plana gizarteratzea.

8. Urrunketa politika amaiteza, euren etxeetatik gertuen dauden kartzelatarak lekualdatuz, 0km-ra.

9. Euren zigorra osorik bete dutenen askatasuna atzeratzen duten neurriak indargabetzea.

10. Espainiako espetxeetan Europako araudia betearazteko mobilizazioetan parte hartzea.

OBJEKTIBOTIK

Altsasun badakite egoki birziklatzen

Altsasuko festetako herri bazkaria altsasuarrak egoki birziklatzen dakitenaren adierazle garbia izan zen. Mila pertsonarendako bazkarian sortutako hondakin guztiak egoki sailkatu zituzten antolatzaileek. Gainera, guztia jasotzeko herritarren laguntza behar izan zutenean ere, non zer bota gogorarazi zuten. Egoki sailkatuta, hondakinak birziklatzera eraman ziren.



GUAIXE

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzailea:

Rebeka Mendoza

Zuzentzailea:

María Luisa Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Garboa
kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Ruben Imaz Alcaide
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Ergoienako Eguna, ibar-nortasuna indartzeko

Lizarragak hartuko du estreinako Ergoienako Eguna, bihar. Ergoienako Bira zena ergoienarrak elkartzeko egun osoko egitaraua bihurtu du udalak. Larunbatean, estreinakoz, Ergoienako eguna ospatuko da. Joseba Imaz alkateak azaldu digu

ERGOIENA

Ergoienako Eguna. Zergatik?

Legegintzaldia hasi zenean gazte batzuk sartu ginen, eta hasieratik pentsaturik genuen Ergoienako Eguna bat sortu behar genuela; bertakoa, bai jende heldua, bai jende gaztea egun bat egoteko, biltzeko, denon artean jaialdi bat egiteko Ergoienako ibarran eguna ospatuz.

Elkarren berri izateko beste modu bat eta elkarren arteko harremanak estutzeko?

Hori da. Ibar txiki bat da, bai, egia esan, hiru herrien artean banatuta gaudela eta zaila izaten dela elkartzeko hori. Azkeneko herrietan festak dauzkagu, baina ez ditugu konpartitzen. Beraz, egun bat jarri konpartitzeko.

Aurretik elkarrekin antolatzen duzuen Ergoienako Bira, Olentzeroren eta errege magoen etorrerak dira, ez?

Bai. Ikus genuen aukera Ergoienako Eguna egiteko Ergoienako Biraren egunarekin batera. Ur-



Lizarragako plazan dantzan. ERGOIENA.COM

tero herri bakoitzean egiten denez, aprobetxatu genuen eta esan genuen: "beno, zergatik ez dugu egiten Ergoienako Eguna urte bakoitzean herri batean? Aprobetxatu egun puntaletan elkartzen garen bezala, beste egun bat

urtean elkartzeko, baina denak batera?"

Ergoienan herriz herri ibiliko den festa ibiltaria izanen da, beraz.

Bai. Urte bakoitzean Ergoienako Bira joaten den bezala, herriz herri, bada Ergoienako Eguna

joanen da herriz herri: aurten Lizarragan, heldu den urtean Unanun eta hurrengoan Dorraon. **Ergoiena bizi bat nahi duzue. Gaur egun nolakoa da ibarra?**

Ergoiena hiru herri txikiz osaturik dago. Egia esan Lizarragak eta Dorraok bertako jendearen bizia gehiago dute Unanun baino. Azkeneko, nahi duguna da halako aktibitateekin herriak ezagutzera eman eta baita ibarreko jendeen artean ere. Denon artean, heldu den legegintzaldirako, edo oraingorako ere, ikusi zer gauza egin daitezkeen eta herritxo hauei bizi hobea eman. Eta, baita ere, Ergoienako identitate hori jendea barneratzen joan dadila. Lizarraga, Unanun eta Dorrao gara, baina Ergoiena gara.

Larunbaterako dena prest?

Bai. Ergoienako Bira Dantzaleku Sakana klubarekin batera egiten dugu. Aurten Lizarragan hasi eta bukatuko da Dorrautik eta Unanunetik pasa ondoren. Urtero arratsaldean egin da, baina aurten, Ergoienako Eguna dela eta goizera pasa dugu. Eguna bera ere prest dago. Dena frontoian izanen da. Pentsatu dugu ezin garela arriskatu, euria egiten badu edo... Bestela, gure amonen eta argazki zaharrak digitalizatzea lortu dugu, eta bai polita izanen dela Lizarragako eskoletan egiten dugun proiektzioa, egun guztian egonen dena. 22:00etan bukatu egiten da. Lehendabiziko urtea izanda ez dugu festa asko luza-

tzea nahi izan, ikusteko jendeak zer erantzun ematen dion eta heldu den urterako joan ikusten zer egin daitezkeen. Espero dugu zerbait polita izatea eta heldu den urtetarako kontsolidatzen den zerbait izatea.

Ergoienako eguneko egitaraua

• **09:00** Ergoienako Biran izena ematea zabalduko da.

Goizean Trikitilariak eta puzgarriak.

• **10:00** Haurren lasterketa.

• **11:00** Ergoienako Bira. Ondoren sari banaketa eta auzatea.

Azoka

Ardi tripota dastaketa, ardoaz edo sagardoaz lagunduta (euro 1).

• **13:00** Meza.

• **15:00** Herri-bazkaria.

• **18:00-22:00** Dantzaldia Fidelekin.

• **20:30** Auzatea.

• **22:00** Festaren akabera.

*Egun guztian argazki zaharren erakusketa egonen da eskolen eraikinean.

Satrustegin egindako lanak bihar mustuko dituzte

Eguerdian egiten den ekitaldiaren bidez egiten dute mustutzea gobernukoek, udalekoek eta kontzejukoek

SATRUSTEGI

Apiriletik agorrila erdialdera arte sareak eta zorua berritzeko lanak izan zituzten egunerokoa satrustegiarrek. Lanak despedituta herritarrek festetan mustu bazituzten ere, haiek mustutze-

ko ekitaldi ofiziala bihar, 12:00etan izanen da.

Egin diren lanek 587.458,87 euroko aurrekontua izan dute. Haietatik 298.785,33 euro, % 70, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departam-

entuak ordaindu ditu eta gaintzeko 212.200,14 euroak, % 30, Arakilgo Udalak. Azken horrek, gainera, proiektutik kanpo gelditutako zenbait gauza egiteko beste 29.435,49 euro jarri ditu. Arakilgo Udala, pixkanaka, ibarreko herri guztietako sareak eta zoladura berritzen joan da, arakildarrek bizi kalitatea hobetu asmoz. Hurrengo lanak Aizkorben egiten dira, 2019an, hala jaso baita Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planean.



Lanei azkenkituak ematen. ARTXIBOA



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Etxe pasiboetarako
59000
egokia

Beirak lehorrean
jarrita

IKD
Isolamendu nukleo
indartsua

Aparteko azala
koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Arakil-Irurtzun, lehen sektorearen erakusleho ederra

Ekoizleen eta artisauen zuzeneko salmenta ereduko azokak makina bat jende erakarri zuen

Rebeka Mendoza IRURTZUN

Arakil-Irurtzongo V. ganadu-azokaren txanda izan zen igande goizean. Arbizuko txistorra, Unanuko gazta, Erriberriko txo-txongilo egileen edota Urruñako zurginaren postuak zeuden. Eguraldi onak jendearen gerturatzea erraztu zuen eta azokaren giroa paregabea izan zen. Umeak Basajaun moduko pertsonaia mitologiarekin jolasten ibili ziren, Brun forjakoen ondoan botatzen zituzten goxokiak hartzen edota animaliei jatekoa ematen.

10:00etatik 14:00etara izan zen azoka. Bitartean gazta dastaketa herrikoia egon zen eta bozkatuena saridunak izan ziren. Arruazuko Albi gaztandegiak aurreneko bi sariak eskuratu zituen, aurrena gazta normal batekin eta bigarrena keztatu batekin. Aranaratzeko Agirre anaiek 3. izan ziren. Azoka despeditu eta gero, Pikuxar euskal txokoak antolatutako herri bazkarian 65 lagun bildu ziren. Arratsaldean, herri kirolak egon ziren.



Herritarrek postuetan bildu ziren, hemen ibarreko turismo bulegokoa. REBEKA MENDOZA



Haritzen ibilbide gidatua egonen da

Jubilatu elkarteak kultur astea antolatu du

Bihar hasi eta ostirala bitartean irteerak, hitzaldiak, antzerkia eta musika izanen dira.

ETXARRI ARANATZ

Gure Ametsa jubilatuen elkarteak, udalaren laguntzaz, kultur astea antolatu du. Herri guztia-ri zabalik diren ekintzak direla jakinarazi dute elkartetik. Eta dohainik direla. Prestatutako egitarauaz gozatzeraz gonbidatu dute.

Arroz aleak altsasuarren arteko kultur bitartekari bihurtuta

Arroza dastatuz altsasuarrek herrian dauden kultur desbedinak ezagutzeko aukera izan zuten hirugarrenez.

ALTSASU

Jatorri eta kultura desberdinetako altsasuarren topagune izan asmo du Munduko Arrozen topaketak. Altsasuko festen barruan hirugarren aldiz antolatu zuten Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta herri mugimenduak. Zubeztia plazako karpan jarri ziren arroza Bulgaria, Ekuador, Maroko, Sahara eta Altsasuko eratarata prestatzen. Ganbia eta Senegalgoez arduratu behar zire-

nak, azken unean, ezin izan zuten joan.

Sukaldariak 11:00etan jarri ziren lanean. Batzuk barazkiak garbitzen eta txikitzen eta besteak haragia xehatzen eta ontzen. Guztiek arroza egin zuten, cous-cousa prestatu zuten Marokoko altsasuarrek ezik. Sahararrek ere datilak ahutz koipearekin eta tea dastatzeko eskaini zuten. Arrozak prestatu bitartean sukaldariengana hurbiltzen zirenak haien azalpen gogotsuak jasotzen zituzten. Hasieran jende gutxi pasa zen karpantik, baina dasta-



Karpa txiki geratu zen, herritarrek ederki erantzun zioten deialdiari. GUAIXE

keta ordua iritsi ahala gero eta gehiago izan ziren. 400 bat plater txoko banatu zituzten.

Dena ez zen jatea izan. Maksin eta Manuel magoen ikuskizuna izan zen. Haurren txokoan puzleak osatu eta tailerretan parte

hartzeko aukera izan zuten. Hautsita bukatu zuen horma batean aurreiritziak, islamofobia, matxismoa eta abar jaso ziren. Sakanara Harrera Haranako kideak ere euren salmahai eta argazki erakusketa jarri zuten.

Festetako auzolan handia primeran atera zen

Mila pertsona elkartu zituen herri bazkariko irabaziak 175rendako aulkiak eta musika ekipoa erosteko dira.

ALTSASU

Altsasu auzolanean eraikiz leloari segituz, bigarren urtez segidan adin guztietako boluntario altsasuarrek festetako herri bazkaria antolatu zuten, gazteek eta helduek. Ia ehun bat pertsona aritu ziren lanean

herri bazkaria behar bezala antolatzeko. Sei batzordeetan banatuta lan egin zuten, bakoitzak bere zereginarekin. Mila pertsonari eman zieten jaten. Ederki asko gainera.

Herrian erositako produktuekin prestatutako bazkaria izan



Herri-bazkariko ikuspegia. GUAIXE

zen. Eta irabaziak zertara bideratuko ziren bazkalburuan jakinarazi zuten.

Jakina zen bezala, joan den urteko erosketa osatzeko 175 pertsonarendako aulkiak erosteko dira eta, horrekin batera, musika ekipoa ere.

Hondakinak

Aipatu beharra dago herri bazkariko antolatzaileek sortutako hondakinak egoki birziklatzea lortu zutela, Altsasun hondakinak egoki sailkatzeko gaitasuna badagoela erakutsiz.

Egitaraua

Irailak 23

• **11:00** Haritzen ibilbidea Jose Luis Erdoziak gidatuta, igerilekutik.

Irailak 24

• **19:00** Trasteandoren kontzertua, kultur etxean.

Irailak 25

• **19:00** Etxarriren historiaz JL Erdoziaren hitzaldia. elkartean.

Irailak 26

• **08:00** Donostiara irteera.

Irailak 28

• **19:00** La familia Malumbres y sus farsas Tarima Beltzaren antzezlan, elkartean.

Irailak 29

• **19:00** Nacido en Siria dokumentalaren emanaldia eta solasaldia, elkartean.



Trena Uhartea Arakilgo geltokian . ARTXIBOIA

Trenbideari buruzko bi aurkezpen Altsasun

Nafarroako trenbide-ardatzari buruzko euren ikuspuntua emanen dute Altsasun heldu den asteen Nafarroako Gobernuak (asteazkenean, 18:30ean, Iortia kultur gunean) eta Sustrai Erakuntza fundazioak (asteartean, 19:30ean, Gure Etxea eraikinean).

SAKANA

Nafarroako trenbide-ardatzak zer esan handia ematen ari da azken aldian. Sustapen Ministerioak Nafarroako Gobernuarekin zuten hitzarmena hautsi zuten joan den asteen. Orduan ere foru administrazioak bere parte hartze prozesua aurkeztu zuten eta Sustrai Erakuntza fundazioak bere Tren Publiko eta Soziala proposamena. Bateko eta besteko ordezkariak heldu den asteen Altsasun izanen dira proposamenak aurkezteko.

Kronologikoki lehena Sustrai Erakuntza fundazioa izanen da



English Begoña

·HH LH DBH·

·4 urtetik aurrera·

·talde txikiak·

650 034 380

·Arbizu·

SUSTATZEN DU:



PROIEKTOA ETA ZUZENDARITZA:




INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

LUARDENA S.L.
C/ REMIGIO MÚGICA 2, BAJO
31005 PAMPLONA (NAVARRA)
948 174 341 / 610 577 300
www.luardena.com

FINANTZATZEN DU:





OHARRA: Lizentzia baldintzengatik alda daitezkeen landareak eta inutiak.

ITURMENDIKO ERDIGUNEAN ETXEBIZITZETAKO SUSTAPENA

5 BOE

NAFARROAKO GOBERNUAREN MURFATZIO ZERBITZUA: 31/1-0008/16



B KALIFIKAZIO ENERGETIKOAREKIN DISEINATURIKO ETXEBIZITZA ESCLUSIBOAK



LORATEGIA - GARAJEA - TXOKO INDIBIDUALA

Altsasun, asteartean 19:30ean, Gure Etxea eraikinean. Fundaziokoendako Nafarroako Tren Publiko eta Soziala “gizarte-ekonomia- eta ingurumen-errentagarritasuna” biltzen duen proposamena da. “Haren oinarria gaur egungo trenbide baliabideak ahal bezain beste baliatu eta hobetzea da. Jendartearen aurkako, xahutzaille eta ezegokia den Abiadura Handiko Trenaren edo Prestazio Altuko Trenaren aurrean, garraibide jasangarri, herrikoiki eta demokratiko batean datza”.

Fundazioak egungo trenbidearen bide paralelo berria egitea proposatzen du eta 3. erraila jartzea, ibilbidean egin beharreko hobekuntza puntualak gehituz. Fundazioak salatu duenez, “Nafarroako Gobernu guztiek, egungoa barne, egiteko eta mantentzeko garestiagoa den aukeraren alde. Ondorioz Nafarroan ez da gaur egungo tren sarea hobetzearen aukera eta zenbatekoa aztertu”.

Nafarroako Gobernuak

Herrialdeko trenbide-ardatzeko herri nagusiek, Altsasu barne, hartuko dute Nafarroako Gobernuak antolatutako informazio-saioak. Altsasun, asteazkenean, 18:30ean, Iortia kultur gunean. Gobernuak proiektu horri buruz bildu duen informazio guztia herri-tarrei eman nahi die. Hitzartzen lehena Manu Aierdi ekonomia lehendakariordea izanen da. Berak Nafarroako trenbide-korridorearen proiektuari buruzko laburpen exekutiboa eman die. Ondoren, azalpenak emateko txanda izanen da, publikoak informazio gehiago edo argibideak eskatzeko; baita beraien iritzia emateko ere.

Gobernuak herrialdeko trenbide-ardatzari buruzko informazioarako eta gizarte-eztabaidarako web bat du: www.corredorferroviario.navarra.es. Informazio guztia kontsultatu eta deskarga eta ekarpenak egin daitezke. Lastailaren 16ra arte egin ahal izango dituzte euren ekarpenak herri-tarrek.

Edozer gauza behar duzula...

Jo Sakanako erakusleihora

Sakanako
gida

2018

Zu non zaude?



Kataluniarekin elkartasunez ekitaldia Arbizun

Gure Esku Dagok deituta banderak jaso, herritarren arteko solasaldia eta aatea izanen da bihar eguerdian

ARBIZU

Arbizuko Gure Esku Dagok Katalunia-Euskal Herria elkartasun ekimena antolatu biharko. Katalunian lastailaren 1erako deitu den erreferendumari babesa eman nahi dio Gure Esku Dagok. Taldeak berak larunbatean milaka jende bildu zituen Bilbon Demokrazia. Bozkatu erabakitzeke. Katalunia zuekin gaude leloarekin egindako manifestazioan. Erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduak eguerdi parterako egitaraua du prest. 12:30ean, trianguluan jarri dute



Esteladaren begiradapean. UTZITAKOIA

hitzordua eta han banderak jasoko dira. 12:45ean, plazan, arbizuarren arteko hizketaldia izanen da. Bakoitzak Kataluniko erreferendumaren inguruko bere iritzi edo sentsazioak partekatzeko aukera izanen du. Hainbat arbizuar han bizitakoak dira edo maiz joaten direnak eta haien bizipenak ere lekua izanen dute. Eta hura despeditzean, 13:30ean kataluniar erako aatea izanen da plazan. Bertan vermuta, fueta, skalibada...

Kontzentrazioak

Guardia Civilak Kataluniako Generalitateko hainbat egoitza miatu eta gobernuko hamalau goi kargu atxilotu ondoren, hori salatzeke Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzan eta Altsasun kontzentrazioak egin ziren.

Festetan ferietako auzipetuak gogoan izan dituzte

Gurasoak peñen jaitsieran eta kontzentrazioan. Herri mugimenduak manifestazioa deitu zuen

ALTSASU

Hiru gazte altsasuarrak 312 egun daramate preso. Haien presentzia, hala ere, nabarmena izan zen festetan. Gurasoek esan zutenenez, "oso argi dugu ez garela probokazioaren zurrumbiloan eroriko, nahiz eta batzuetan kosta izan. Bakean bizi nahi dugu, eta justizia, hori da argi eta garbi eskatzen duguna. Justiziarik gabeko herria ez da zoriotsua, eta honetaz asko dakigu". Aurretik epaiketa dutela ekarri zuten gogora. "Demokraziarendako ez dira garai onenak,

baina ez gara kikilduko. Estatuaren geografia guztian barna, eta Europa guztian barna esango dugu Altsasukoa ez dela terrorismoa, Oihanek, Jokinek eta Adurrek aske egon beharko lukete". Probokazioetan ez erortzeko eskatu ondoren, jasotako babesagatik, atzera ere, esker ona azaldu zuten gurasoek.

Altsasuko herri mugimenduak deituta *Errepresioaren aurrean, herri erantzuna* leloa zuen manifestazio jendetsua egin zen larunbatean, Ferietako liskarra salatzeke protestaldiaren aka-

beran esan zutenenez, "Guardia Civilak Foruzaingoak eta hedabideen laguntzarekin hasitako muntaia herri oso bat baldintzatu du". Gaineratuz, "estatuak Ospa mugimendua eta Alde Hemendik aldarria kriminalizatu egin du, haien zilegitasuna kolokan jartzeko nahiarekin". Ospa mugimenduaren ibilbidea eta zilegitasuna defendatu zituzten.

Errepresioak "hamaika aurpegi ditu eta edozein mugimendu ito eta egungo sistema bermatzea du helburu, bere esku duen edozein tresna erabiliz horretarako. Metodo erreprezioa bizitzaren eremu desberdinetara zabaltzen" ari dela dela gaztigatu zuten. Gainera, "erreprezioa arazo erreal eta nabaria da". Herri libre batean bizitzeko "erreprezio indarrak" joan beharra nabarmendu zuten.



Amarauneko aterpeko jolastokia.

Amaraunean, familian jolasean, hazkuntza kontzientea lantzeraz

Haur eta gurasoek Amarauna espazioak dituen hainbat guneetan egon eta partekatzeko aukera izanen dute.

ZIORDIA

Amarauna Ziordia proiektu autogestionatuko kideek familiei zuzendutako ekimen baten berri eman dute: Familian Jolasean. Amaraunakoek azaldu digutenez, ekimenaren "helburuak gure haurrekin jolasaren bitartez disfrutatzea, gure seme-alabei lagun eta espazio berriak eskaintzea eta helduondako elkar laguntzeko nahiz hazkuntzak egunerokoan sortzen dizkigun kezke hitz egiteko tribua sortzea dira".

Familia Jolasean ekimena heldu den ostegunean jarriko da martxan, 15:30etatik aurrera. Ostegunero Ziordiko Amarauna espazioan, komentu zaharrean, elkartuko dira. Familia bakoitza komeni zaion ordutegian joateko aukera izanen du, ordutegi zorrotzik gabe.

Ziordiko Amaraunera joaten diren haur eta gurasoek hainbat

espazio izanen dituzte erabilgarri: kanpoko jolas guneak, aretoa, psikomotrizitate gela, jostailuen gela, sukaldea, areto handia... Interesa dute gurasoek Amarauneko kideekin harremanetan whatsapp aplikazioaren bidez harremanetan jartzeko aukera izanen dute, 605 742 905 zenbakira (Ane) mezuak bidaliz.

Auzolana

Ziordiko eraikin handia euren nahietara egokitzeke Amarauna Ziordiko kideek agorritaren 5etik 8ra auzolanera deitu zuten. Jendea poliki bildu zen eta hainbat lan egin zituzten: komun lehorra, jantokia eta arkuak margotuak, ohe estrukturak... Lanaren emaitzarekin "oso pozik" gelditu ziren eta gehiago egingen dituztela jakinarazi digute. Horren ondoren, ez dute aspertzeko aukerarik izan hainbat jarduera hartu baitituzte.

CITROËN JUMPY BERRIA EZER EZ DA EZINEZKO

3 neurri: XS - M - XL
Altuera 1,90 * | ALBOETAKO ATEAK
ESKU LIBRE IREKIERA IRRISTAKORRAK
MODUWORK **-ekin KARGARAKO 4m
BAINO GEHIAGOKO LUZERA

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËNEK nahiago TOTAL *FURGONERAKO XS eta M neurriak aukeran eta M eta XL Combirako. **XL neurrian.
KONTSUMO MIXTOA (100KM/L) / CO2 ISURIA (KM/G): 5,1/5,6 - 133/148



CITROËN

citroen.es

Aguraingo auto-istripuan bi sakandar hil ziren

Ezbeharrean zendutako lakuntzarra eta ziordiarra gertukoek astelehenean despeditu zituzten

LAKUNTZA / ZIORDIA

Larunbatean, goiz goizetik, samina zabaldu zen Lakuntzan eta Ziordian. Herri bakoitzeko gizonetako bana hil zen eurek gidatzen zituzten autoak aurrez aurre jo ondoren. Ezbeharra A-1 autobian izan zen, Agurain parean, 5:15ean. Auto-istripuaren tokira joan ziren osasun zerbitzuek eta suhiltzaileek ezin izan zuten ezer egin, hildakoen gorpuak autotik ateratzea soilik. Ertzaintza arduratu da ezbeharra ikertzeaz. Antza, kontrako norabidean sartu zen 38 urteko lakuntzarra. 30 urteko ziordiarra Gasteizera lanera zihoan.

Hiru hildako errepidean

Zirkulazio istripuen ondorioz aurten 3 sakandar hil dira errepidean. Asteburuko bieki garilarren 20an motor istripuan hildako gazte irurtzundarra gehitu



Auto bat txikituta. @BOMBEROSEUSKADI

behar zaie. Joan den urtean lau izan ziren Sakanan izandako istripuetan hildakoak, haietako hiru sakandarrak. Haietako bat argitu gabe dago: gauez etxera oinez zihoan gazte arbizuarrarena, auto gidariak ihes egin zuena.

Gobernuaren klima-aldaketari buruzko jarreraren aurkezpena

Altsasuko lortia kultur gunean izanen da aurkezpena, ostegunean, 18:00etatik 20:00etara.

SAKANA

Klima-aldaketari buruzko Bide-orria Nafarroako Parlamentuaren aginduz lantzen hasi zen foru administrazioa 2016ko udaberrian. Besteak beste, honako galderei erantzun nahi die bide-orri horrek: nolako eragina dauka klima-aldaketak Nafarroan? Badugu hori jakiterik? Nola murriztuko ditugu emisioak eta nola beteko ditugu nazioarteko konpromisoak? Nola egiten diegu aurre inpaktuei eta nola murriztuko dugu gure ahulezia Ingurumenaren arloko erronka horri, Nafarroako Gobernuak nola aurre egiten dion, zein jarrera hartuko duen azaldu du, "Klima-aldaketari buruzko 2017-2030-2050eko ibilbide-orrian". Zirriborroa egin dago eta orain hura eztabaidatu eta osatu nahi du herritarrekin eta sektore sozial eta ekonomikoekin.



Horretarako, eztabaida-jardunaldi batzuk antolatu ditu. Bertan KliNa zer den azalduko da eta eztabaidatuko da eta Nafarroako klima-aldaketari buruz: egoera, erronkak eta erantzunak bilatzen saiatuko dira. Zazpi eztabaida eta aurkezpen jardunaldietako bat Altsasun izanen da. *Nafarroako Gobernu Irekia* web orriaren dago KLINari buruzko informazio guztia. Las-taillean gai jakinei buruzko lau seminario egingen dira. Bestetik, azaroaren 30era arte egin daitezke ekarpenak.

Santa Agedako sexu-erasoa epaitzen hasi dira

Aste honetan bi egunetan izan da eta DNA teknikari baten faltagatik beste egun batean segituko du

ALTSASU

27 urteko emakumezko altsasuar batek sexu-eraso larria salatu zuen joan den urteko kinto ospakizunetan. Azaldu zuenez, otsailaren 6ko goizaldean izan zen sexu-erasoa, Foru plazako taberna bateko komunean. Emakumezkoak salatu zuenez, 36 urteko gizonetako altsasuar bat bere atzetik komunean sartu eta han erasotu zuen. Guardia Civilak ikertu zuen salaketa.

Nafarroako Lurralde Auzitegiko 1. epaitegian izan da epaiketa asteartean eta asteazkenean. Herenegun DNA teknikari bat egin izan zuelako joan eten egin zen eta hurrengo egunetan segituko du. Fiskaltzak sexu-erasoagatik gizonetakoendako 9 urteko espetxe zigorra eta 5.000 euroko kalte-ordaina eskatu ditu eta beste 270 euroko kalte-ordaina emakumezkoari lesio-arinak

sorrarazteagatik. Epaiketan gizonetakoak sexu-erasorik egin izana ukatu zuen, eta emakumezkoak salaketa berretsi zuen.



Sexu indarkeriaren aurka Arbizon egindako mobilizazioa. UTZITAKOIA

Sexu indarkeriari aurre egiteko deia

Arbizuko plazan hainbat herritarrek kontzentrazioa egin zuten astelehenean. Sexu indarkeriari aurre egin behar zaiola nabarmendu zuten. Deialdiarekin ere Uztaritzeko hilketa eta Bilboko eraso salatu nahi izan zituzten.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

LAN-ESKAINITZA

Ramos Industrial: PLC-en programatzaile baten bila gaitza. Programatzen eta makinak martxan jartzen esperientzia eskatzen dugu. CV eskura eman bertan. Konfidentzialtasuna bermatuko da.

HIGIEZINAK

ESKUALDATZEA

Fisioterapia zentroa eskualdatzen da. Bi kontsulta eta erabilera anitzeko gela bat. Sakanan. Tel 627 650 916.

SALDU

IBILGAILUAK

Salgai Citroen Xara VTS 2.0 HDI, 110 zaldi, diesel, 3 ate, 2003. urtekoa, oso ongi zainduta. Tel 646 76 23 83.

IKASTAROAK

Arakilgo Udalak antolatuta: Oinarrizko argazkilaritza (Hiriberri), Zizak sailkatze mitologia tailerra (Hiriberri), Pilateak (Zuhatzun), Yoga (Iharbarren), Zumba (Zuha-

tzun), Gimnasia (Iharbarren), Entrenamendu funtzionala (Zuhatzun) eta Latindar dantzak (Zuhatzun). Xaniturri taldeak antolatuta, Eskulanak (Etxarren), Izena-emateko 646 605 732. Bestetik gogorarazi Etxarren frontoiak alokatu nahi duenak 650 557 057 telefonora hots egin behar duela (Migel). Izena emateko epea irailaren 27ra artekoa da; udallean 948 500 101 telefonon edo info@arakil.net e-postan. Informazio gehiagorako 634 584 226 edo arakilkultura@gmail.com.

Etxarri Aranazko Udalak antolatuta: Pintura (asteartean), Soinketa lasaia (astearte eta ostegunetan), Aerobic (astearte eta ostegunetan), Zumba (astearte eta ostegunetan), Body balance (astearte eta ostegunetan) eta Zirkotailerra (astelehenean). Izen-ematea irailaren 29ra arte zabalik. Horretarako inprimakia www.etxarriaranatz.

eus eta udallean daude. Eskatutako datu guztiak bete behar dira. Informazio gehiagorako, udallexera edo 948 460 004 telefonora jo.

Altsasuko Udalak eskainita: Emakumearen bilgunearena: Genero indarkeria biziraun duten emakume taldea; Bularrako minbizia izan duten eta duten emakumeen autolaguntza taldea sortzea; Zaindu zure burua; Jendaurrean eraginkortasunez hitz egin; Sare sozialetan kanpo zaude? Aktiba zaitez!; Lentzeria, ehoziariak eta jostintza. Ekonomia Garapena: Kafe konpondu. Kulturarena: Antzerki tailerra. Ludoteka zerbitzua. Gazteriarena: Serigrafia; Zirkotailerra; Lanetarako gaitasun pertsonalak; Sortu zure web orria; Hiri-margoa; Aisialdiko aurrebegiralea (izena emateko azken egunak dira. 14-17 urte artekoendako) eta aisialdiko begiraleak. Liburutegia: Literatura hizketaldiak. Izen-ematea hilaren 26ra arte dago zabalik eta

012 edo 948 012 012 telefonora hots eginez egin daitezke. Literatura hizketaldiena, libururtegia.

Aisialdiko aurre-begiraleak. Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatuta du ikastaroa eta izena emateko azken egunak dira. 14-17 urte artekoendako. Datak: irailak 30, urriak 7, 21, azaroak 4 (10:00-14:00), eta urriak 28 (10:00-18:00). Doan.

KLASEAK EMAN

Matematika eta fisika klase partikularak ematen ditut. Tel 650 296 449.

OHARRAK

Olatzagutiko ludoteka. Izena ematea irailaren 18tik 25era udallean, bulego ordutegian. Haurreko 33,50 euro pagatu behar dira, familia bereko bi haur edo gehiagoren kasuan, 55euro. Ordainketa 012 edo 948 012 012 telefonoaren bidez, lastailaren 16tik 21era edo udalaren kontuetan dirua sartuz. Lu-

doteka lastailaren 2an hasiko da.

Etxarri Aranazko haur txokoa. Astegunetan: 16:45tik 20:00etara zabalik egonen da ikasturte honetan. Izen emateko inprimakia (www.etxarriaranatz.eus) bete eta familiako 5 euro ordaindu behar dira (3035 0116 91161043123). Ikasturte hasierako bilera irailaren 28an, ostegunetan, 19:00etan, kultur etxean.

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egingen ari dira. Ekarpinak parrokiaren edo herriko banku eta kuxketan zabalduko kontuetan sartu daitezke

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza

zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabiltzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui kliniko baxkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosejosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosejosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzten: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

Plaza hobetzeko proposamenak aztergai

Gaia aztertzeko sortu den teknika-taldeak landu dituen proposamenak aztertuko dira, peatonalizazioa eta plazako estalopea. Udalak etxarriarrak batzar irekira deitu ditu udaletxera; heldu den ostegunean izanen da, 17:30ean.

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udalak plaza eta bere ingurua hobetzeko parte hartze prozesua martxan jarri zuen otsailean. Informazio batzarrik egin eta etxarriarren iritzia jasotzeko inkestak jaso ziren. Batzuetan eta besteetan jasotako informazioari Asun Erdozia, Iñaki Erdozia, Erta Arruabarrena eta Andoni Igoa arkitekto etxarriarrek tekniko ki itxuratu dute. Proposamena ontzen Bea Agirre aparejadore etxarriarra eta udaleko teknikariak (arkitektoa, kultura teknikaria eta enkargatua) lagundu diete. Euren lana osteguneko batzarrean ezagutzeko aukera izanen da.

Martxoko batzarretan 25 bat pertsonak parte hartu zuten eta plaza mugikortasun aldetik hobetzea eta han estalope bat jarztearen inguruan hizketatu ziren. Udalak zabalduetako inkestak 143 erantzun izan zituen eta %84k plazan estalope bat jar-



Etxarriarrek aurreko partehartze bilera batean ARTXIBOIA

tzearen alde agertu ziren; zehazki kioskoaren atzean eta kioskoa integratuta. Gauzak horrela plazako zati horretako erdiko zuhaitzak kendu beharko lirarteke, ertzetakoak mantenduz. Parte-hartzaileek estaloperako

zura, burdina eta kristala materialak gogoko zituztela esan zuten. Plazan izanen den aterpe hori eguraldi txarra egiten duenean babesteko balioko du. Eta, aldi berean, ekitaldiak antolatzeko ere.

Oinezkoekin lotutakoak

Etxarri Aranazko Iturri, Larrañeta eta Nagusia kaleetan oinezkoendako espazioak sortzearen beharra ere agerian gelditu da parte hartze prozesuan, batez ere aurreneko biak. Bestalde, udaletxe pareko galtzadari mugikortasun mugatua duten pertsonendako traba direla nabarmen gelditu da. Horretaz aparte, argitasun gehiago eskatzen zen plaza zati horren erdialdean eta udalak bi farola jarri ditu haren alde banatan, informazio pantailaren ondoan eta Ugalde kalearen ondoan.

Ibilgailuen aurrean oinezkoak babestuago egoteko Etxarri Aranazko zenbait tokitan zebrabide goratuak jartzea egoki jo zen, baita espaloiak eta pasabideak oinezkoendako libre uztea ere. Jakina, oinezkoendako eremuak sortzeak ibilgailuak aparkatzeko espazio gutxiago utziko du eta horiendako hiru aparkaleku proposatu dira: Larrañetan autoak zeharka aparkatzea (egina), Burundabide etorbideko medianan aparkalekua egitea eta, azkenik, Larreñondoko zelaia autoak uzteko egokitzea.

400 bat zuhaitz

Horiek dira, gutxi gorabehera, Etxarri Aranazko herrian dauden plataneroak eta 100 bat urte dituzte. Herriaren ezaugarrietako bat bihurtu dira. Bai batzarretan bai teknikarien taldean zuhaitzena sakon aztertu da.

Etxarriarren gustuko izan arren, zuhaitzak oso baxuak dira eta traba edo muga handia dira mugikortasunerako eta plazan espazio irekiak sortu edo jarduerak eta ekitaldiak antolatzeko. Plazan estalopea egiteko zenbait zuhaitz kentzea aurreikusten dira, baina haiekin batera, beste batzuk ere, plaza arintze aldera eta espazio diafanoagoak sortze aldera. Plazako zuhaitzetako batzuk klorosiak jota daude, zainak zabaltzeko espazio gutxi dutelako.

Haur txokoko izen ematea

Musika eskolak hartzen duen eraikinean dago Haur Txokoa 2011tik. Ikasturte osoan, astegunetan 16:45etik 20:00etara, zabalik egoten den jolastokia da Haur Txokoa. Han haurrek eta gurasoek bat egiten dute. Udalak sustatutako gune horren kudeaketaz gurasoak arduratzen dira. Hura erabiltzeko fa, miliako 5 euro ordaindu behar dira. Izena emateko epea ostegunetik despeditzen da. Horretarako, udaletxean edo web orrian dagoen inprimakia bete.

4.0 industria eta digitalizazioa helburu gero eta nabarmenagoa

Lakuntzan egindako mintegiak harremanak estutu eta esparru horren beharra agerian uzteko balio izan zuten.

LAKUNTZA

Espero baino harrera hobea izan zuen 4.0 industria eta digitalizazioari buruz ostiralean egin zen mintegiak. Sakanako Garapen Agentziak (SGA) antolatu zuen lan saioa eta zori onduak izan ziren.

Sakana 2020 Plan Estrategikoan jaso dago enpresen teknologia eta ezagutza berrikuntza prozesuak sustatuz industria enpleguak mantentzeko eta hobetzeko helburua. Lakuntzako mintegiak kanpoan eta Sakanan gaur egun 4.0 industria eta di-

gitalizazioaren arloan egiten ari dena ezagutzeko aukera aparta izan zen. Ibarrean garatutako teknologiarekin harritu ziren asko. SGAKo Odei Arregik esan digunez, saioak enpresa sakan-darrak harremanak estutzeko balio izan zuten.

Parte-hartzaile gehienak esparru horretan pausoak emandakoak baziren ere, izan ziren ere digitalizazioa beraien prozesuetan barneratzen hasteko interesa zuten enpresetako ordezkariak. Azken horiek esparru horretan aurrera egin behar

zutela ideia buruan zutela atera ziren mintegitik Arregik esan digunez.

4.0 industria eta digitalizazioari buruz mintegiak "ilusioa eta interesa" piztu zituela azaldu digu SGAKo industria teknikariak. Baina gaineratu duenez, jarraipena eman behar zaio. Batetik, enpresak horren inguruan sentsibilizatzen. Eta, bestetik, hain muga zabalak dituen esparruan prestakuntzan, ezagutzan, esperimentazioan, sistema berrien garapenean eta abarretan sakonduz.

Sakanako Plan Estrategikoa Ibarreko industria enpresen lehiakortasuna hobetzea du helburu, horretarako haien arteko elkarlana eta berrikuntza sustatuz. Asmo horrekin Sakanako Garapen Agentziak eskualdeko adimendun espezializazioa ga-



Digitalizazioari buruzko saioei jarraipena eman nahi zaie.

ratzeko aukera-esparruak identifikatzeko lanari ekin zion joan den urtean. Hiru dira: energia, zahartze aktiboa eta birziklapena. Baina horien guztien zeharkakoa da laugarrena, digitalizazioa. Horrek bere garrantzi

handia nabarmentzen du. Digitalizazioak industria ekoizpena eta salerosketaz gain bizitzako arlo guztiei eraginen diola eta agentziatik iraultza digitalerako prest egon beharko dugula garrantzitu dute.

Plazaola bide berdeko 9,3 km egokitzen ari dira

Urte berriarekin Irurtzun eta Sarasa lotzen dituen zatia erabilgarri izanen da. 2018an Latasa eta Irurtzun arteko lanei helduko die Nafarroako Gobernuak, Ederbidea proiektuaren barruan. Bi bide horiek Europako bizikleta sarearen zati izanen dira.



Irurtzun eta Arakilgo alkateak, beste udal ordezkari batzuekin eta bi gobernuetako arduradunekin Gulinan. GOBERNU ORDEZKARITZA

ARAKIL / IRURTZUN

Arakilen eta Irurtzunen barna Iruñea eta Andoain lotzen zituen tren zena Plazaola. Haren izena duen turismo partzuergo tren-bidea bide berde moduan berreskuratzeko lanari ekin zion.

Gaur egun Andoain eta Latasa artean ibili daiteke bizikletan edo oinez. Eta bide berde horri urte akaberarako edo urte berriaren hasierarako beste 9,3 km gehituko zaizkie, Irurtzundik Sarasara artekoak. Lanak gari-

lean hasi ziren eta martxa onean ari dira egiten.

Egokitzen ari diren zatia Irurtzun ganean trenbideak zuen geltokitik Aizkorberantz jotzen du. Trena tunel batetik Aizkorberako benta zenaren azpitik pa-

satzen zen. Baina tunela hondoratu egin zen eta hori konpontzea garestia denez, desbideraketa egingen dute. Irurtzungo alkatea Aitor Larraza Carrerak azaldu digunez, "Aizkorbe aurretik, telefonika eta haur eskola hartu zuen eraikinaren inguruan ezkertera aterako tunela saihesteko desbideraketa. Aldapatxoia igo eta Aizkorberako benta zenaren ganean aterako da, gero betiko bidearekin lotzeko".

Behin lan horiek despedituta Iruñea Plazaolara lotzeko beste 10 km-ko zatia egokitzea faltako litzateke. Arakilgo Udala kide den Plazaola turismo partzuergo lanen proiektua idatzi du eta bide berdearen mantenuaz eta lanak bukatzean haren sustapenez arduratuko da.

Lanek 684.478,12 euroko aurrekontua dute. Haietatik % 53 Europako Feader funtsak jarriko ditu eta gainontzeko % 47 Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Bide Naturalak Programak.

Ministerioko Landa Garapen eta Baso Politikako Zuzendari Nagusi Esperanza Orellanak esan duenez, "bideen berreskurapenak kultura- eta tradizio-ondarea mantentzen lagundu eta tokiko populazioen sozio-ekonomia garapenean laguntzen dute. Ekonomia jarduera zabaltzen egiten dute, turismo eskaintza zabaltzean. Eta landa eremuen arteko komunikazioa hobetzea-

rekin batera, milaka pertsonen aisialdirako baliagarriak bihurtzen dira".

Plazaola eta Ederbidea

Bi bide berde horiek Irurtzunen bat egingen dute. Plazaolako 41 km daude ibiltzeko prest gaur egun. Ederbidea, berriz, Baiona, Donostia eta Iruñea lotuko dituen bizikletendako sarea izanen da. Larrazak esan digunez, "lan horiek Nafarroako Gobernuak sustatzen ditu, Europako POCTEFA 2014-2020 lurralde-lankidetzarako programaren diru-laguntzekin, eta 2018an lanak hastea aurreikusten da. Orain desjabetzeak egiten ari dira".

Latasa eta Irurtzun arteko zatia egokitu beharra dago. Irurtzungo alkateak jakinarazi digunez, "Larraun ibaian dagoen Larraldeko zentralera iritsiko da bidea eta hortik bigarren mailako errepidera pasako da. Semaforoak jarriko dira. Ergako tunela itxita dagoenez, desbideratzea egingen da eta Plazaolaren betiko bidera aterako da, Irurtzuna iristeko".

Eurovelo

Plazaola eta Ederbidea bide berde edo natur bideak Europako bizikletendako ibilbide sareko zatiak izanen dira. Kontinente guztia, muturretik muturrera zeharkatzen du sareak. Horrek Arakilen eta Irurtzunen nazioartekotzea ekarriko du.

Erizaina ikastetxean ohitura osasungarri eta prebentziorako

Lakuntza eta Olazti arteko ikastetxeetan ariko da erizain bat 2.450 ikaslerekin lastailaren 2tik aurrera.

SAKANA

Aranazko eta Burundako 2.450 ikasleek erizain bat izanen dute ikastetxean ikasturte honetan. Nafarroako Gobernuak Osasun eta Hezkuntza Departamentuen eta Nafarroako Erizainen Elkargo Ofizialaren lankidetzaren emaitza da hori. Esperientzia pilotu honen helburua osasun eragileen eta eskola erkidegoaren arteko lankidetzaren eredu bat definitzea da, gero Nafarroa osora zabaltzeko. Erizainak bizitza-ohitura osasungarriak sustatuko ditu eta arriskuak adin

goiztiarretatik prebenitzeko lanean ariko da. Edo bestela esanda, esku-hartze goiztiarra sustatu nahi da sedentarismo joeraren, elikadura-ohitura txarrak izatearen edo toxikoak hartzearen ondorioz gero eta handiagoak diren osasun-arazoetan.

Eskola Erizaintzako programa garatzeko lehen fasearen aurreikuspenen arabera, 850 ikasle artatuko ditu Etxarri Aranazko osasun eskualdean (Haur eta Lehen Hezkuntzako 7 eta DBHko 1) eta 1.600 Altsasuko osasun eskualdean (Haur eta Lehen

Hezkuntzako 4 eta DBHko 1). Bi osasun etxeetako pediatria (14 urtera arte) eta Lehen Arretako zerbitzuekin koordinatuta ariko da erizaina. Etxarri Aranazko osasun etxean jakinarazi dituzten, erizaina, lanaldi osoan, lastailaren 2an hasiko da lanean. Hasi eta abendua bitartean helburuak zehazteko eta planifikatzeko fase bat izanen da. Ilbelta eta maiatza bitartean eskola-elkartearikiko lankidetzan zehaztutako tailerrak eta jarduerak garatzea aurreikusita dago, eta garagarrian, egindako lana ebaluatzeko prozesu bat gauzatu da.

Eskola Erizaintza programaren helburuak hauek dira: adin goiztiarretatik bizitza-ohitura osasungarriak sustatzea, eskola-komunitateko eragile guztiak autozainketaren alderdi nagusietan



Gurasoak eta haurrak Olatzagutiko eskolan. ARTXIBOA

prestatzea (irakasleak, ikasleak, guraso-elkartek, arreta psikopedagogikoko taldeak eta abar), eta eskola-inguru osasungarriak sustatzeko. Edukiak hezkuntza-ziklo bakoitzera egokituz joango dira.

Bizitza osasungarria sustatzeko bost arlo nagusiren inguruko lan-lerro izanen ditu: elikadura, jarduera fisikoa eta atsedena, harreman osasungarriak, afektibitate eta sexu hezkuntza eta substantzia toxikoen kontsumoa.

NAFARROAKO TRENBIDE-KORRIDOREARI BURUZKO INFORMAZIO JARDUNALDIAK



 **Altsasu**
Iortia Kultur Gunea

Sarrera irekia eserlekuak agortu arte



Gehiago jakiteko eta parte hartzeko:
www.corredorferroviario.navarra.es



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Korrikalariak aldapan gora aurreko urtean Dorraon jokatu zen Ergoienako Biran. GUAIXE

XIII. Ergoienako Bira, Lizarragan eta goizez

ATLETISMOA Lehenengoz Ergoienako Eguna antolatu dute eta bertan txertatu dute Ergoienako Bira. Bihar izanen da, larunbatean, Lizarragan. Goizeko 10:00etan haurren proba jokatu da eta 11:00etan helduena (8,5 km)

Aurten berrikuntzekin dator XIII. Ergoienako Bira. Orain arte irailean antolatzen zen, beti arratsaldean, urtero Ergoienako herri batean, txandakatuz. Aurten, Ergoienako Bira lasterketa Ergoienako Egunean txertatu du Ergoienako Udalak. Hain zuzen ere Ergoienako Eguna larunbatean ospatuko da, Lizarragan, egun osoko egitaraua

izango du eta lasterketa goizez antolatzea erabaki dute.

Horrela, larunbatean, goizeko 9:00etatik aurrera Ergoienako Biran parte hartu ahal izateko izena emateko epea zabalduko da. Goizeko 10:00etan haurren lasterketak jokatu dira, kategoriaka, eta goizeko 11:00etan, aldiz, helduen proba (8,5 km). Ergoienako Udalak antolatu du

lasterketa, hainbat talde eta babesleren laguntzarekin.

Gorabeheratsua eta gogorra

Probari dagokionez, Ergoienako Birak Lizarraga, Dorrao eta Unanu lotzen ditu. Proba oso gorabeheratsua da, erritmo aldaketaz, aldapaz eta bihurtuenez josia. Proba gogorra, finean. Lizarragatik aterata, Dorrao eta Unanu

gaindituko dituzte korrikalariak; atzera era Dorratotik pasako dira, Unanura heldu eta Lizarragako helmugara iristeko.

Aurreko urtean Dorraok hartu zuen Ergoienako Bira eta Dani Martinez iruindarra eta Izaskun Beunza olaztiarra izan ziren txapeldunak.

Auzatea eta festa giroa

Bukaeran, Lizarragako Kontzejak hamaiketako eskainiko die korrikalariari. Lehendabiziko hirurek, gizonetakoek eta emakumetakoek, saria jasoko dute, eta korrikalarien artean Ergoienako produktuez osatutako loteak zozketatuko dira.

Sakanako Koparako baliagarria

Ergoienako Bira Sakanako Kopa-Lasa Kirolak Sarirako puntuagarria da. Egun, emakumetakoan Izaskun Beunza eta Ginesa Lopez daude Kopako lehen postuan eta Txaro Ondarra, Amaia Etxeberría eta Irati Azkargorta dira bigarrenak, puntutara berdinduta. Gizonetakoan, Felix Benjumea da liderra eta Raul Audikana eta Antton Zelaia bigarrenak, puntutara berdinduta. Ergoienako Birak, urriaren 21ean jokatu den Sakanako XVI. Herri Lasterketak eta abenduaren 8an Altsasun Zubeztia elkarteak antolatzen duen Barrikarteren XXXVI. Oroimenezko Oinezko Lasterketak erabakiko dute Sakanako Kopa-Lasa Kirolak Saria.

Jose Beraza Nafarroako Ultra txapelduna

MENDI LASTERKETAK II.

Nafarroa Xtreme luzean 6.a sailkatu zen eta laburrean Noveleta 3.a

Larunbatean Zubirik II. Nafarroa Xtrem mendi lasterketa hartu zuen. Proba luzean (67 Km) Adi eta Saioa gainditu behar izan zituzten proba osatu zuten 103 korrikalariak. A4XK taldeko Alvaro Ramos izan zen azkarrena (7: 28: 18). Jose Luis Beraza seigarrena iritsi zen, (8:04:05), probako lehen beteranoa. Proba Nafarroako Ultra Txapelketa zenez, Nafarroako txapelduna izan zen Beraza, probako lehen nafarra izan baitzen. Emakumetakoan Zizur Nagusiko Irene Genbek irabazi zuen proba (8:52:24). Eta 32 km-ko proba laburrean, aldiz, Unai Santamaria (2:50:41) hernaniarra eta Aroa Sío (3:23:39) galiziarra gailendu ziren, 163 korrikalarien artean. Hirugarrena Evaristo Noveleta irurtzundarra izan zen (2:53:52).

Bestalde, Atxondon X. Sorginen lasterketa jokatu zen (17 km). Xuban Mendiola etxarriarra 63.a sailkatu zen (1:50:34).

Emakume, goazen korrika egiten ikastera!

ATLETISMOA Sakanako emakumeendako atletismo eskola antolatu du Mank-ek; izena ematea, zabalik

Emakume asko animatuko ziren korrika egitera, baina askok korrika egiteko teknikak zeintzuk diren ez dakizkitez, korrikan nola hasi, luzaketak nola egin... Horrela, emakumei korrika egiteko beharrezko prestakuntza eskaintzeko duela 6 urte Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola antolatu zuen Sakanako Mankunitateak. Erantzuna primerakoa izan zen. Aurreko urtean, lehenengo aldiz, bi talde sortu ziren: hastapeneko, hasi berriak ziren emakumeendako, eta hobekuntza taldea,

esperientzia zutenendako. 19 emakume trebatu ziren hastapenekoan eta 12 hobekuntzakoan; beraz, 31 emakume guztira.

Hastapena edo hobekuntza

Aurten ere Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola antolatu du Mank-ek 18 urtetik gorako emakumeendako. Horretarako, Altsasuko Udaleko Emakumearen Bilgunearen eta kirol zerbitzuaren, Iñigo Aritzia ikastolaren eta Dantzaleku Sakana Atletismo Taldearen laguntza izan du Mank-ek.



Hiru emakume aurki Altsasuko ferietan jokatu den ondo lasterketan. GUAIXE

Emakumeen Atletismo Eskolaren 6. edizioa urriaren 20an hasiko da eta maiatza bitartean, ostiralero atletismoaren nondik norakoetan trebatuko dira emakumeak, Aitor Mozo Villanueva monitorearen begiradapean.

17:15etik 18:00etara hastapen ikastaroa izanen da, eta 18:00etatik 19:15era hobekuntza ikastaroa. Izena ematea zabalik dago, urriaren 7ra arte, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus).

Sakandarrak proban

Nafarroa Xtrem (67 km)

1. Alvaro Ramos (Navasfrías):	7:28:18
6. J.L. Beraza (Uhar):	8:04:05
12. Joxeja Maiza (Etx):	8:18:01
14. Josu Unzurrunzaga (Etx):	8:26:03

Nafarroa Xtrem (32 km)

1. Unai Santamaria (Hernani):	2:50:41
3. Evaristo Noveleta (Irur):	2:53:52
43. Iñigo Etxarte (Irur):	3:33:43
60. Andoni Goñi (Irur):	3:42:48
68. Iñaki Lacalle (Olaz):	3:47:59
87. Aitor Salinas (Etx):	3:59:08
125. Sergio Goñi (Olaz):	4:23:19



Aurreko urtean lainoa eta hotza izan ziren protagonista. Argazkian, korrikalariak Beriaingo azken arranpetan. KM BERTIKALA, LUIS

Igandean, Beriainekin hitzordu garrantzitsua

MENDI LASTERKETAK IX. Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala igandean jokatu da, 10:00etatik aurrera. Aurtengo berrikuntza nagusia da korrikalari guztiak batera aterako direla. Eguraldi ona iragarri dute eta jendetza espero da Beriaingo maldatan

Iganderako eguraldi polita iragarri dute eta, beraz, gozamenaz izango da Beriainera hurbiltzea, gure mendi ikusgarriaz gozatzeaz aparte, zuzenean Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala jarraitu ahal izateko. Ohi denez, Beriainera bitarteko maldak, azken aldapa gogorrenak, bereziki, korrikalariak animatzera igoko diren zalez beteko dira eta giro ikusgarria aurreikusten da. Izan ere, Aralar Mendi elkartereko mendi klubak, Uharte Arakilgo Udalak eta Nafarroako eta Euskal Mendi Federazioek, hainbat babeslerekin batera, etzi, igandean, aipatu probaren 9. edizioa antolatu du.

Urte honetara arte, Euskadiko Km Bertikalen Koparako puntuagarria izaten zen Uharte Arakilgo proba, baina aurten Euskal Herriko Mendi Lasterketen Konbinatuko Txapelketarako baliagarria izango da. "Apirilaren 23an Oñatin jokatuak Alohako maratoni erdiak, ekainaren 3an Leitzan jokatuak Euskal He-

rriko Mendi Erronka Ultrak eta Uharte Arakilgo Km Bertikalak puntuatuko dute. Finean, distantzia guztiak kontuan hartuta hobekien moldatu diren korrikalariak saritu nahi dituzte" azaldu digu Aralar Mendiko Juanjo Goikoetxeak.

Ibilbidea: 5 km aldapatsu eta gogor

Dortsalen banaketa herriko plazan egingo da, goizeko 8:00etatik aurrera. Helmugara igotzeko arroparen bilketa, berriz, 9:00ak arte egingen da. Goizeko 10:00etan abiatuko da proba Uharte Arakilgo frontoitik. Aurten, proba kronometratua izan beharrean, korrikalari guztiak batera aterako dira. "Korrikalariak beraiek hala proposatuta hartu dugu guztiak batera ateratzeko erabakia. Gure probak hori ahalbideratzen du, herritik igerilekuetara bitarteko 300 m horietan korrikalariak nahi duten tokian kokatzeko aukera badutelako. Euren eskakizuna kontuan har-

tu dugu; ikusiko dugu nola ateratzen den, ez dugu uste trabarik sortuko denik" gaineratu du Goikoetxeak. Aralar Mendiko kideak azaldu duenez, "ez dakigu aldaketarengatik den edo ez, baina korrikalari asko animatzen ari dira Km bertikalean aritzera eta 200 korrikalarien kopuruko muga 220ra zabaltzea erabaki dugu".

Uharte Arakildik (471 m) aterata Beriaingo San Donato ermita izango dute helburu parte hartzaileek (1494 m). Proba motza da, baina intentsitate handikoa: 5 km-ko lasterketa, baina 1.023 metroko desnibelarekin eta sekulako etapa eta maldekin, San Donato baselizara iristeko azken maldak, bereziki. Bidean

KORRIKALARIAK BERAIEK ESKATUTA, AURTEN DENAK ELKARREKIN ATERAKO DIRA, EZ BANAKA

zaleen berotasuna eskertuko dute korrikalariak.

220 korrikalari, puntakoak


Aurreko urtean 145 korrikalari aritu ziren, tartean 18 sakandar, eta euri, haize eta lainopean Aitor Osa (40:30) eta Maria Zorroza (49:27) izan ziren txapel-dunak. Zorrozak, gainera, aurretik Leire Agirrezabalek zuen errekorra 20 segundotan hobetu zuen. Sakandarren artean Aritz Munarriz (46:49) izan zen azkarrena. Esan bezala, aurten korrikalari ugari espero dira, tartean punta-puntakoak: Aitor Osa, Imanol Goñi, Raul Garcia, Beñat Katarain, Jose Luis Beraza, Aritz Munarriz, Maider Fraile eta abar.

Aipatzekoa da Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala zuzenean jarraitzeko aukera izango dela, estatu mailako Km bertikalak jarraitzen ibiltzen diren Madrilgo zale batzuek baimena eskatu eta baiezkota eman dietelako Aralar Mendikoek.

<https://vimeo.com/187801557>
2016ko Uharte Arakil-Beriain probari buruzko bideoa.

Errekorra: Osa (39:54) eta Zorroza (49:27)

Eguerdiko 13:15 aldera hasiko da sari ematea. Emakumeendako eta gizonezkoendako sariei dagokionez, txapel-dunek garaikurrak, txapela eta 300 euro jasoko dituzte, bigarrenek garaikurra eta 150 euro; eta hirugarrenek garaikurra eta 100 euro. Beteranoendako eta 18 urtez azpikoendako txapel-dunendako garaikurra izanen da. Bestalde, errekorra apurtuz gero, 300 euroko saria dago jokoan. Errekorra 2015ean ezarri zuen Aitor Osak (39:54). Aldiz, emakumezkoen errekorra aurreko urtean, 2016an ezarri zuen Maria Zorrozak (49:27). Horretaz gain, Euskal Herriko Mendi Lasterketen Konbinatuko Txapelketako sariak banatuko dira.



Raul Audikana olaztiarra. UTZITAKOA

MENDI LASTERKETAK Olatzagutia-Urbarasako izena ematea zabalik

Uharteko Km Bertikalari txanda hartuta, irailaren 30ean XI. Olatzagutia-Urbarasa mendi lasterketa jokatu da. Sutegi taldeak hainbat babesleren laguntzarekin antolatutako proba, Olatzagutiko San Migel festen egitarauaren barruan.

Aurreko urtean bezala, ohiko ibilbidea (26,33 km) eta ibilbide laburra (16,04 km) izango dira aukeran, azken hau kadeteendako eta hala nahi dutenendako.

Izena ematea zabalik dago www.olatzagutia-urbasa.eus web orrian edo www.herrikrosa.eus web orrian, irailaren 25era arte. Probaren informazio guztia, ibilbidearen track eta profilak barne, probaren web orrian daude eskuragai.

MENDI LASTERKETAK Etxarriko mendira joan etorria, ate joka

Etxarri Aranazko Udaberri elkarteak bertako Udalarekin eta Nafarroako Mendi Federazioarekin antolatuta, Etxarriko ferietako igandean, urriaren 1ean, jokatu da XLII. Mendira Joan Etorria, 11:00etan.

Etxarriko plazatik bargara igotzea da erronka, Hartzabale-raino (1065 m), maiatza jartzen den tokiraino, eta handik berriro plazara jaitea. Etxarriko proba Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako puntuagarria izango da eta 10 km eta 572 m desnibel positiboko proba da.

Izena ematea zabalik dago, dagoeneko, www.mendizmendi.com web gunean.



Finalistak, Irujo eta Zubieta, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari Ruben Goñi, Altsasuko alkate Javier Olló eta Pilota Federazioko eta SDAko ordezkariak. SDA

Uharte Iruñea, Otadiko Kristo Deunako txapeldun

PILOTA Oberenaren kontra jokatu hiru partidetan gailendu zen Uharte. SDAk Juan Martínez de Irujo eta Aitor Zubieta pilotariak omendu zituen sari ematean. Nafarroako Pilota Federazioko kideak, Javier Olló eta Ruben Goñi izan ziren sari ematean

Altsasuko festetako ostiral arratsaldean jokatu ziren Sociedad Deportiva Altsasuak (SDA) antolatutako 28. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoako finalak. Uharte Iruñea edo Oberena, zeinek irabaziko zuen, hori zen kokxa. Izan ere, aurten formatuan aldatuta egin zuen SDAk eta klubaren arteko txapelketa izan da Altsasun jokatu dena.

Hasieran Pilotajaukuko gazte-txoen arteko finala jokatu zen. Partida politan, Agirretxeri eta Ulaiarri 6 eta 18 irabazi zieten Olabidek eta Ortigak.

Torneoko finalean, lehendabiziz lau t'erdiko finala jokatu zen. Hasierako tartean Canabal (Oberena) egon zen aurrean, baina bukaera aldera, 11 eta 16 atzetik joan eta gero, 16ra berdindu

zuen Espinalek (Uharte) eta, azkenean, 18 eta 16 irabazi zion Canabali, 38 minutu iraun zuen partidatan.

Beraz, buruz buruko partida irabaztera behartuta zegoen Oberenako Jamar, baina Uharte Iruñeko P. Etxeberriaren kontra ezin izan zuen ezer egin. Etxeberria bere gainetik pasa zen (18 eta 5), 20 minutu eskasetan.

Torneoa irabazita zuela ekin zion Uhartek azken partidari, binakakoari. Yoldik eta Peñasek (Uharte) bikote oso sendoa osatzen dute eta euren kontra aukerak izateko oso ongi ibili behar da. Ansak eta Cordonek (Oberena) ez zuten asmatu. Yoldik 8 tanto egin zituen sakez eta, azkenean, 22 eta 8 irabazi zieten Ansari eta Cordoni.

Beraz, Altsasuko txapelak Uharte Iruñera egin zuten bidaia.

Zubietari eta Irujori omenaldia
SDAk omenaldia egin zion aurreko erretiroa hartu zuten Aitor Zubieta atzelari etxarriarrari eta Juan Martínez de Irujo aurreko handiari. Aurrekoak dantzatu zieten eta oroigarriak eta opariak jaso zituzten. Bi pilotariek eskertuta eta hunkituta jaso zuten Altsasuko pilota zaleen omenaldia.

ElkarPelotak Etxarrenen egoitza zabalduko du

PILOTA 2017-2018 ikasturtean pilota formakuntza espezializatua eskainiko du, astearte eta asteazkenetan

Fernando Goñik, Patxi Eugik, Peio Martínez de Eulatek eta Juan Martínez de Irujok 2015ean ElkarPelota sortu zuten, pilotariak trebatzeko zentroa. Orain arte imarkoainen zuten egoitza, eta ordutik ikasturte bakoitzeko 50 ikasle trebatu dituzte. 2017/2018 ikasturterako imarkoaino egoitzaz gain, saltoa eman eta Sakanan egoitza zabaltzea erabaki dute, Etxarrenen frontoian hain zuzen. Asmoa urrutik aurrera, asteartean eta asteazkenetan, Etxarrenen pilota formakuntza espezializatua eskaintzea da.

“Sakanatik, Larraundik eta inguruko herrietatik datorren eskariari erantzuteko zabalduko dugu Etxarrenen egoitza. Bertako gaztetxoei Sakanan bertan trebatzeko aukera eskaini nahi diegu, imarkoaineraino mugitu gabe. Uste dugu erantzun ona izango dugula” azaldu du Fernando Goñik. Azken bi urte hauetan imarkoainen pilotari sakandarrak trebatu dituzte.


ElkarPelotan talde txikietan eskaintzen da pilota formakuntza. Eugi, Goñi, Martínez de Eulate eta Martínez de Irujo



Sakanatik hainbat pilotari trebatzen dira ElkarPelota zentroan. ELKARPELOTA

dira entrenatzaileak. Helburua, beste klubetan trebatzen diren pilotariei prestakuntza bereziagoa eskaintzea da, alde taktikoak, teknikoak eta fisikoak lantzea, pilotariek kalitatean gora egin dezaten. ElkarPelotatik nabar-

mendu dute harreman oso ona dutela Sakanako pilota klubekin “Gehitzeko gaude hemen, laguntzeko. Pilotak gora egitea, hori nahiko genuke” gaineratu zuten Irujok. (Informazioa: 662 467 875 edo elkarpelota@gmail.com).



Elkarren kontra ariko dira. GUAIXE

PILOTA Ezkurdia eta Albisu edo Olaizola eta Zabaleta?

Sanmateo Torneoan, B multzoan gaur erabakiko da nor sailkatzen den iganderako final handirako. Ezkurdia-Albisuk eta Olaizola-Zabaletak gaur jokatu duten partidatik aterako da finalista (19:15ean, ETB1). Maila ikusgarriarekin daude bi bikoak eta lehia oso estua espero da.

Astelehenean Ezkurdiak eta Albisuk 22 eta 12 irabazi zioten Irribarriari eta Urrutikoetxeari; Albisuk atzean agindu zuen eta Ezkurdia onenaz gozatzeko aukera izan genuen; Sanferminetan bezala, ikusgarri aritu zen arbizuarra. Eta, asteazkenean, Olaizola eta Zabaleta zapalmanak moduan aritu ziren; Urrutikoetxea ordezkatu zuen Larunbe goitik behera dominatu zuen Zabaletak, eta goizuetarrak bere nahia egin zuen, Irribarriaren kalterako (22 eta 9).

A multzoan, atzo gauean erabakitzea zen nor sailkatuko zen finalerako; hiru bikoteek zituzten aukerak: Altuna III.a-Untoriak, Victor-Rezustak eta Bengoetxea VI.a eta Merino II.ak.

KIROLDEGIA Kirol egokituko klaseak, urriaren 2tik aurrera

Mank-ek, Askalatsen laguntzarekin, kirol egokitua eskainiko du beste behin. Zehazki, igeriketa eta soinketa eskola izango da eskainiko dena, urriaren 2tik maiatzaren 16ra bitartean, astelehenean eta asteazkenetan, 17:00etatik 18:00etara. Aitor Mozo izango da irakaslea. Jarduera dohainik da baina izena eman beharra dago (948 464 866).



Ziorditik aterata, Sakana punta batetik bestera zeharkatuko dute, Irurtzuneraino. GUAIXE

Eguraldi ona Sakanako Bizikleta Egunerako

TXIRRINDULARITZA Igandean, goizeko 9:00etan hasita, Ziordia eta Irurtzun batuko ditu XXIV. Sakanako Bizikleta Eguna (41,3 km). Iturmendiko Aritzaga ermitan Donejakue bideko azalpenak emango ditu Nicolás Arbizuk. Lakuntzan egingo da atsedena

“Sakana bizikletaz ezagutzen” lelopean burutuko da urtero ezagunagoa den Sakanako bizikletaren festa. Mank-ek antolatzen du, Barranka, Burunda eta Aralar Txirrindularitza Taldeen eta Ziordiko eta Irurtzungo Udalen laguntzaz.

Aritzagan geldialdia

Sakanakoa ibilaldi ez lehiakorra da, urte hauetan guztiz egonkortu dena. Goiz ederra pasatzea da helburua, Sakana puntatik puntara zeharkatuz eta gure herriak eta txokoak ezagutzeko. Halaber, herri ezberdinetako jendearen arteko harremana sustatu nahi da.

Aurreko urtean bezala, Sakanatik pasatzen zen Donejakue bidea ezagutarazi nahi da. Horrela, Iturmendiko Aritzaga ermita erromanikoan geldialdia egingen dute eta Nicolas Arbizu iturmendiarrak 10-15 minututan Donejakueko bidearen eta Aritzagaren inguruko azalpenak emango ditu.

Aurreko urtean 400 lagun inguru bildu ziren, eta iganderako eguraldi ona iragarri dutenez, parte hartze handia espero da.

“Jende asko animatu da, familia osoak deitu dute izena emateko” azaldu digu Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. Izan ere, Sakanako Bizikleta Egunean parte hartzeko izena aurretik eman beharra zegoen.

Antolakuntzaren esanak jarraitzea eskatu dute, segurtasun arazorik ez izateko. “Zehaztua dagoen ibilbidea jarraitu, beste biderik ez hartu” eskatu dute. Kaskoa derrigorrezkoa da eta partaideek ogitartekoa eraman beharko dute. Antolakuntzak freskagarria banatuko du Lakuntzan egingo den geldialdian.

Iganderako bizikleta puntuan jartzea eskatu dute antolatzaileek. Izan ere, igandeko mekanikaria eguneko ustekabeko matxurez arduratuko da soilik.

Autobusa, 8:00etan

Autobusa eta kamioia goizeko 8:00etan abiatuko dira Irurtzundik, izena eman duten partaideak eta haien bizikletak jaso eta Ziordiraino eramateko. Sakanako Bizikleta Eguna bukatzen denean, kontrako ibilbidea egingo du, txirrindulariak etxera bueltatzeko.



BURUNDA TXIRRINDULARITZA KLUBA

Arabako Itzulia Aznarrendako

TXIRRINDULARITZA Igandean kadeteen Arabako Itzuliko azken etapa jokatu zen. Saillapen orokorrean, Quesos Burundako Unai Aznarrek irabazi zuen Itzulia eta mendiko saillapena, Irabiako Aitor Alberdi bigarrenaren puntutara berdinduta. Quesos Albeniz izan zen talde onena eta Irabiako Unai Gorritik tartekako helmuguen saria jaso zuen.



Ailetz Lasa, pozik. BURUNDA

TXIRRINDULARITZA Ailetz Lasa ziordiarra Tafallan txapeldun

Borobila izan da asteburua Quesos Albeniz taldearendako. Kadeteen mailan Arabako Itzulia irabazteaz gain, juniorren eta 2. mailako kadeteen Tafallako proban, Ailetz Lasa ziordiarra irabazi zuen, esprint oso estuan. Sakandarrei dagokienez, Etxezarreta 6.a sailkatu zen, Gil 7.a, Etxeberria 9.a, Galarza 13.a, Mauleon 19.a, Mitxaus 32.a, Gorriti 36.a eta Jaka 43.a.



MOVISTAR TEAM

Erbiti eta Izagirre Mundialetan

TXIRRINDULARITZA Egunotan Munduko Txirrindularitza Txapelketak jokatu ari dira Bergenen (Norvegia). Taldekako erlojupekoan, Imanol Erbitiren eta Gorka Izagirreren Movistar Team seigarrena sailkatu zen, Team Sunweb taldetik 1:19ra. Egunotan bakarkako erlojupekoak jokatu dira eta igandean bi sakandarrek lineako proba dute jokoan.

Binakako Botxa Txapelketako finalak, asteburuan Irurtzunen

BOTXA Bederatzi bikote lehiatzen ari dira Irurtzungo Iratxo elkartearen antolatutako txapelketan

Botxa petanka antzeko joko tradizionala da. Irurtzunen Iratxo elkartearen botxategian jokatzen da botxara. Egunotan, 9 bikotek parte hartu dute Binakako Botxa Txapelketan. Ligaxka jokatuta ondoko lau bikote sailkatu dira

lehenak: Migel Olo-joana Goñi, Txutxurrin-Edurne, Mikel-A-sensio eta Pakita-Josune. Atzean geratu dira Mikel Gelbentzu-Iban, Txeli-Tere, Tere-Juanito, Julen Iribarren-Iñaki Juango eta Gaizka Jimenez-Mikel Arregi.

Asteburuko menua

Gaur, ostirala, lehen lau bikotek aurrefinalak jokatuko dituzte. 19:00etan, Migel Olo eta Joana Goñik, Paki eta Josune izango dituzte aurkari, eta, 20:00etan, Txutxurrinek eta Edurnek Mikel eta Asensioen kontra jokatuko dute.

Larunbatean, 19:00etan, 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida jokatuko da eta, 20:00etan, Binakako Botxako final handia. Bukaeran sari ematea egingo dute Iratxo elkartearen.



GUAIXE

Rural Kutxa nagusi Altsasun

TXIRRINDULARITZA Aurreko ostiralean Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatutako 88. Altsasu Proba jokatu zen. Lasterketa oso mugituan, Lizarteko Dzimtry Zhyhunouk irabazi zuen, Rural Kutxako Odei Juango lakuntzarraren aurretik. Mauricio Moreirak

mendiko saria irabazi zuen eta Rural Kutxa izan zen talderik onena. Iker Azkaratek (Rural Kutxa) Euskaldun Torneoa irabazi zuen. SDAk orain arte Altsasuko proba irabazi duen altsasuar bakarra omendu zuen, Martin Zelaia. Hunkituta eta eskertuta hartu zuen omenaldia.



NAFARROAKO KIROL ETA GAZTERIA INSTITUTUA

Kirola eta gizarte-inklusioa

KIROLDEGIA Altsasuko Kristo Deuna aterpean "Sports for Peacebuilding and Inclusion of minorities" ikastaroa jasotzen hari dira hainbat herrialdeetako 25 parte-hartzaile, larunbatera arte. Aipatu formazioa Erasmus + programak eskaintzen du, Europar

Batasuneko hezkuntza, prestakuntza eta gazteria eta kirol arloko programak. Ikastaroa gazteriarren arloan lan egiten duten teknikari eta langileei, formatzaileei, kirol teknikariei, eta gazteekin kirola eta gizarte-inklusioa lantzen duten dinamizatzailerik zuzendua dago.



Gimnasten koreografia ederrekin gozatu zuten Zelandin bildutakoek. REBEKA MENDOZA

10 urte dantzan, 10 urte Iskiza Sakana

GIMNASIA ERRITMIKOA Urteurrena ospatzeko, Iskizak erakustaldi berezia egin zuen Altsasuko festetan

Rebeka Mendoza ALTSASU

Iskiza taldearen X. urteurrena ostiralean ospatu zen. Eguraldi txarrarengatik azken orduan emanaldia Zelandiko frontoian egin behar izan zen. "Jendearen erantzuna ona izan zen eta kiroldegia betetzea lortu genuen" azaldu digu Iskiza Sakanako Olaia Agirre monitorea.

Zelandin, Iskizako gimnastek erakustaldi ikusgarria eskaini zuten. Banakako eta taldekako lanak tartekatu zituzten, 15 koreografia guztira. Bukaeran, Iskizako dantzari guztiek elkarrekin dantzatu zuten. Azkenik,

Altsasukoak Aske ekimenaren alde prestatutako koreografia batekin entrenatzaileek ekitaldiari amaiera eman zioten. "Erantzun hau ikusita denboraldi berria hasteko gogotsu gaude" gaineratu zuen Agirrek.

Nahiz eta hasieran gimnastak gurasoengatik dantzaren eta gimnasia erritmikoaren munduan hasi, askok taldean dagoen giroarengatik jarraitu dute, Mad-di Mendinueta, Maider Maiz, Ainhoa Imaz edota Irati Begiristainen kasuetan, esaterako. Azken hauek, gainera, egun entrenatzaile ere badira.



REBEKA MENDOZA

Sakanako I. Irristaketa Trofeoa

IRRISTAKETA Altsasuko festetan Sakanako I. Irristaketa Trofeoa jokatu zen, Patin Sakanak antolatuta. Zumalakarregi plaza Nafarroako irristalarik bete zen eta guztiek ikuskizun polita eskaini zuten. Bestalde, Ioseba Fernandezek Pantxo Egozkue pilotuarekin desafioa egin zuen Garesen, 100 metroan. Oso gutxigatik Egozkue eta bere autoa gailendu ziren.



Lakuntzako Lagun Artea klubeko preferente mailako taldea. GOIKO

Lagun Artea: asmoa, igoera fasean sailkatzea

FUTBOLA Aurreko urteko taldetik 9 baja izan eta gero, berritu da Carlos Gomezek zuzentzen duen taldea. Preferente mailako goi postuetan sailkatu nahiko lukete lakuntzarrek, Maila Autonomikoko Igoera Fasea jokatu ahal izateko

Hasi da preferente maila. Aibarés taldearen kontra galduz ekin diote ligari Lagun Arteakoen, baina liga luzea da oraindik eta aurten goiko postuetan sailkatu nahiko lukete, Maila Autonomikoko Igoera Fasea jokatu ahal izateko. Baina, horretarako, liga guztian zehar maila ona eman eta erregularrak izan beharko lukete lakuntzarrek. Ea asmoa gauzatzetik duten.

Iazko taldetik hainbat baja izan ditu Lagunek: Eneko Orrio, Mikel Beraza, Carlos Garcia, Mikel Galdeano, Xabi Mondragón, Ignacio Elizburu, Asier Salgado, Joseba Montoya eta Andoni Egurza jokalariek taldea utzi dute. Euren tokia betetzeko Garikoitz Maiza (Txantrea), Dani Beorlegi (Iruntxiki), Dani Nagore (Egues), Dani Muñoz (Burlades), Urko Eizagirre (Beti Kozkor), Jon Arenaza (Etxarri), eta Ekaitz Gartzandia eta Xabi Maiza lakuntzarrek iritsi dira taldera. Eta gainontzeko urtetik 15 jokalarik jarraitzen dute.

Aurreko urtean bezala, Carlos Gomez Puyol entrenatzaileak jarraitzen du Lagun Artea gidatzen. Gaztea, aldageletan oso giro ona sortu duela, taldean beste bat gehiago dela eta jokalariek berarekin oso harreman ona dutela nabarmendu dute Lakuntzako klubetik. Aurten Ignacio Vidal Villegas izango du alboan, bigarren entrenatzaile lanetan, Sergio Perezek taldea utzi eta gero.

Harrobiarekin kontentu

Taldea osatzea kosta egin zaie aipatu ditu Laguneko idazkari Jesus Mari Goikoetxeak. "Gurea bezalako herri txiki bati asko kosta egiten zaio. Badago adin tarte bat, 16 eta 20 urte artekoa, jokalariek lortzea oso zaila dena. Hemen ez daude eta Iruñean ere zaila da jokalariek lortzea, bertan klub asko dardelako, erraztasun gehiagorekin. Baina taldea osatzea lortu dugu eta pozik gaude aurten Lagun Arteak kategoria txiki guztietan

taldeak osatzea lortu duelako eta, hemendik aurrera harrobi garrantzitsua izango dugulako jokalariek trebatu eta nagusien talderako prest egoteko" gaineratu du.

Izan ere, preferente mailako taldeaz gain, 2017/2018 denboraldian jubenen mailako taldea, kadeteena, haurren mailakoa eta kimuen mailakoa izango ditu Lagun Arteak. Harrobia, beraz, ziurtatua dago datorren urteetarako.

Aurreko urtean laugarrena sailkatu zen Lagun Artea, igoera faserako postu eskas batera. Aurten igoera fasea jokatu nahiko lukete. "Oso zaila izango da, preferente mailan sekulako lehiakortasuna dagoelako. Tal-

LAGUNEK 5 TALDE DITU: PREFERENTEA, JUBENILA, KADETEA, HAURRENA ETA KIMUENA

de oso onak daude: Pamplona, Aibarés... Iruñerriko taldeak oso onak dira. Baina gu saiatuko gara, beti bezala" nabarmendu du Goikoetxeak.

Junta

Lagun Artea klubeko juntan ez dago aldaketarik. Carlos Ruiz de Erentxun da presidentea, Jesus Mari Goikoetxea, idazkaria, Jose Maria Lanz, diruzaina eta Diego Cruz, Jabier Andueza, Juan Ignacio Mendieta, Xabi Betelu eta Oskar Maiza bokalak. Horretaz gain, Oskar Maiza eta Diego Cruz delegatuak dira.

Lagun Artea 2017/2018

- **Atezainak:** Andoni Del Arbol eta Garikoitz Maiza.
- **Atzelariak:** Aitor Egurza, Jon Olló, Kepa Ollas, Gari Ruiz de Escudero, Ioritz Goñi, Markel Erdozia, Dani Beorlegi, Urko Eizagirre eta Jon Arenaza.
- **Erdilariak:** Eneko Cruz, Jonathan Davila, Xabi Burillo, Iñaki Berastegi, Dani Ramos, Iñaki Mendieta eta Dani Nagore.
- **Aurrelariak:** Odon Arbeloa, Ander Unanua eta Dani Muñoz.
- **Entrenatzailea:** Carlos Gomez Puyol. Bigarren entrenatzailea: Ignacio Vidal Villegas.

Futbol 8 Topaketak

Urtero bezala, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Futbol 8 eta Areto Futbol 8 Topaketak antolatuko ditu, bi mailatan: kimuen mailan (2007an eta 2006an jaiotako neska-mutilak) eta benjaminen mailan (2009an eta 2007an jaiotakoak). Dagoeneko zabalik dago aipatu topaketetan apuntatzeko epea, urriaren 6ra arte, Mankomunitatean (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus).

FUTBOLA

PREFERENTE MAILAKO EMAITZAK	
Lagun Artea - Aibarés	1-2
Etxarri Aranatz - Mutilbera B	0-3

SAILKAPENA	
1. Lagunak	3
11. Lagun Artea	0
16. Etxarri Aranatz	0

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
18:15 Mutilbera - Lagun Artea	Mutiloan
17:00 Urrotarra - Etxarri	Urrotzen
16:00 Altsasu - Lagunak B	Dantzelekun

Preferentea: bi taldeek galduta

Lakuntzan, lakuntzarrek hobe aritu ziren. Markelek Lagun aurreratu zuen, baina berehala berdindu zuen Aibarés. Nahiz eta lakuntzarrek aukera asko izan, Oibarkoek garaipenaren gola sartu zuten. Bestalde, Etxarri, Mutilbera hasieratik aurreratu egin zen eta atsedena baina lehen bigarrena sartu zuen. Nahiz eta Etxarri saiatu, ez zen posiblea izan eta Mutilberak 3. gola egin zuen.

Altsasu bihar hasiko da

Aurreko astean San Ignazioren kontra aritzekoa zen Altsasu, baina partida urriaren 12ra atzeratu dute. Larunbatean, 16:00etan, Altsasuk Lagunak B taldea hartuko du Dantzelekun.

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak El Pozo Murcia du aurkari

Aurreko asteburuan hasi zen 2017/2018 Areto Futboleko Lehen Maila. Osasuna Magnak Santiago Futsal hartu zuen Anaitasunan, 2.300 zaleren babesa zuela. Imanol Arregiren taldeak ikusgarri jokatu zuen, eta hasieratik erritmo bizi-bizia izan zuen partidari, 8 eta 5 gailendu ziren berdeak. Dani Saldise (2), Roberto Martil, Victor, Rafa Usin, Araça (2) eta Eserverri izan ziren golegileak. "Hiru puntu hauek liga ongi hasteko oso garrantzitsuak dira" nabarmendu zuen Imanol Arregik.

Saldise eta Usin, selekzioa

Bihar, larunbatean, Osasuna Magnak El Pozo Murcia talde ahaltsua izango du aurkari Murtzian (17:30, Teledeporte). Bestalde, aipatzekoa da Espainiako selekzionatzaileak Dani Saldise eta Rafa Usin konbokatutituela irailaren 24tik 27ra Bratislavan jokatu den lagunarteko hiruko torneo batean Espainiako selekzioarekin jokatzeko.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 22

ARBIZU Harrietan mandalak margotzeko tailerra. Posca errotulagailuekin lan eginen dute, Enara Insaustik gidatuta. Aurretik izena eman behar da. 17:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zembakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Abracadara filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Berriketan. Askoa Etxebarrieta, La Pulgak euskal sustraiak eta flamenkoa uztartzen dituen emanaldia eskainiko du. 22:30etan, kultur etxean.

LARUNBATA 23

ALTSASU Altsasutik Goldaratzera 85 km-ko joan-etorria eginen du zikloturista taldeak. Baratzeko bide plazako lokomotoratik, 09:30etan.

ETXARRI ARANATZ Haritzen ibilbidea eginen dute Gure Ametsa jubilatuta elkarteko kideek Jose Luis Erdoziak gidatuta. 11:00etan, igerileku ondotik.

ARBIZU Katalunia-Euskal Herria elkartasun ekimena antolatu du GEDk. Lehenik banderak jasoko dira eta gero solasaldia eta auzatea

izanen dira. 12:30ean, triangeluan eta gero plazan.

ETXARRI ARANATZ Etorkizuna dantza eskolaren eta Etxarri Aranazko abesbatzaren ikuskizuna. 19:00etan, plazan

OLATZAGUTIA Las apariencias enmagian. Pedro III.a magoaren ikuskizuna. 20:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 24

IRURTZUN Saioa mendira joanen dira Iratxo mendi taldekoak.

SAKANA XXIV. Sakanako bizikleta eguna Ziordia eta Irurtzun artean 41,3 km-ko ibilbidea. 09:00etan Ziorditik.

ALTSASU Altsasutik elurtegira 55 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak. 09:00etan klubeko bajeatetik.

OLATZAGUTIA Trikitontu kontari. Gorakada taldeak hainbat ipuin abiapuntuz hartu eta hainbat tekniken bidez emanen du. 17:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Trasteando taldearen kontzertua. 19:00etan kultur etxean.

ALTSASU Abracadabra filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan Foru plazan.

ASTELEHENA 25

Etxarri Aranatz. Etxarriren sortzeaz eta historiak hitzaldia emanen du

Jose Luis Erdoziak. 19:00etan Gure Ametsa elkartean.

ASTEARTEA 26

Altsasu. Sustrai Erakuntza fundazioak Tren Publiko eta Sozialaren proposamena aurkeztuko du. 19:30etan, Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

ASTEAZKENA 27

ALTSASU Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren ikuspegiak osatzeko herritarren mahaia antolatu du Nafarroako Gobernuak. 17:00etatik 19:30era, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Irailak 27 (1975-2017) omenaldi-ekitaldia Sakanako ezker abertzaleak antolatuta. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Nafarroako trenbide-ardatzari buruzko informazio-saioa. Manu Aierdi ekonomia-lehendakariordeak azalpen exekutiboa emanen du eta gero azalpenen txanda izanen da. 18:30etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 28

ETXARRI ARANATZ Plaza ingurua hobetzeko batzarra. Teknika-taldeak landu dituen proposamenak aztertuko dira, peatonalizazioa eta estalopea. Udalak etxarriarrak parte hartzera animatu ditu. 17:30etan, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ La familia Malumbres y sus farsas antzezlanak jokatu du Tarima Beltzak. 19:00etan Gure Ametsa jubilatuta elkartean.

ALTSASU Dunkerke filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.



ALTSASU Fokua jarrita.

Altsasuko Udalaren Gazteria Zerbitzuak Intxostiapunta gazte gunean antolatutako argazki ikastaroko lanak. Irailaren 25etik lastailaren 8ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Saioa Erdozia Alberdi ZORIONAK polita! Oso ongi pasa zure egunean, opari asko jaso eta beti bezain ikasle ona eta zintzoa izaten jarraitu. Muxu pila bat. Amakux.



Jose Calvo Mendez 89. urtebetetze zoriontsua opa dizugu! ZORIONAK zure semeen eta biloben partetik!



Iraia Lopetegi Etxebarria Zorionak prexioxa!!! Dagoeneko 4 urte bete dituzu. Segi beti bezain alaitu eta maitakor. Disfrutatu zure urtebetetze egunean. Mila muxu Lixarrego eta Arbizuko familiaren partetik!



Ainhitze ZORIONAK Ainhitze!! Gure etxeko dantzaria. Dagoeneko 10 urte!! Ene bada, nola handitu zaren! Muxu pila etxekoan partez, polita..



tito eta Ainhitze ZORIONAK bikote! Amaxoren partez, muxu asko!



Iñaki Amillano ZORIONAK Beni Zure kuadrilaren partetik jaso ezazu besarkadarik beroena. Eskerrak Ulaiarako zaindariak mugak gordetzen dituela, bestela...



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860




ESKELA

**Javier Cerviño
Anton** 

Gure Nahia
taberna


ESKELA

**Pello Lezea
Cuello** 

Gozamena izan da zu ezagutzea
eta zure laguna izatea.

Ziordiko lagunak


ESKELA

**Pello Lezea
Cuello** 

Utzi pentsatzen
berri elkartuko garela,
iraganeko egunak
itzuli ahal direla.


Ziordiko Gazte Asanblada

ESKELA

**Javier Cerviño
Anton** 

79ko kintoak


ESKELA

**Javier Cerviño
Anton** 

Gure lankide Ebaren anaia

Kattuka haur eskola

ESKELA

**Javier Cerviño
Anton** 

Urak dakarrena, urak daroa,
zuk emandakoa,
gurekin gelditzen da.

Rokodromoko zure lagunak

ESKELA

**Javier Cerviño
Anton** 

Zure hegoak hegaldatzen joateko prest
zeuden; ez, ordea, gure bihotzak zu
joaten ikusteko. Zure alaitasun, irrifar eta
oroitzapenekin biziko gara.
Gero arte, Javi!!

Anton familia

ESKELA

**Javier Cerviño
Anton** 

Dastatu eguzkiaren argia
zauden lekutik.
Denon partez, Javi, agur.

Baldarrak


Lakuntza

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 22




Larunbata, 23



Igandea, 24



Astelehena, 25



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus► Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€/130,68€
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

EZKONTZAK

• **Omar Hamani eta Chaimaa Esoubai Azizi**, irailaren 16an Olaztin.

HERIOTZAK

• **Martin Suarez Martinez**, irailaren 15ean Altsasun.• **Pedro Lezea Cuello**, irailaren 16an Ziordian.• **Francisco Javier Cerviño Anton**, irailaren 16an Lakuntzan.• **Martina Senar Senar**, irailaren 20an Lizarragan

40 tanatorios
IRACHE
aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Altsasuko Basaluzeko dorrea. ARTXIBOIA

Basaluzeko dorrea ondasun inbentariatu deklaratu dute

XIX. mendeko Madril-Irun telegrafia optikoko lineako parte zen dorrea babesteko neurria da hori

ALTSASU

Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusi Fernando Perez Gomezek ebazpen bidez jakinarazi du Altsasuko bargan dagoen monumentua ondasun inbentariatu deklaratzeko espedientea ireki dutela. Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean ezarritakoarekin bat dator proposamena. Izan ere, araudi horrek ondasun higiezin inbentariatu babeserako konterbaziorako neurriak egokienak zehazten ditu. Halako eraikin bat inbentariatzen den momentuan berari buruzko zehaztapenak lehenetsia dute hirigintza-planetan.

Madril-Irun telegrafia optikoko linea 1844tik 1846ra bitartean eraiki zuten, eta Nafarroan hiru dorre ditu: Ziordiako, Altsasuko Basaluzeko eta Engarako. Bizitza laburra izan zuten, be-

rehala telegrafo elektrikoa instalatu baitzen. Madril-Irun linea 1855. urtetik aurrera ez zen gehiago erabili. Dorreak abandonatu ziren, eta horietako asko desagertu dira edo oso hondatuta daude. Zenbait dorre zaharberri dira.

Dorreek diseinu espezifikoak dute, bi ezaugarri hauekin: telegrafo optikoaren seinaleen mekanismoa dorrearen gailuraren dago, eta defendatzeko gaitasuna dute borrokan ere komunikazioa ez eteteke. JM Mathé koronelak diseinatu zituen Madril-Irun lineako dorreak. Horretaz aparte, ondoko dorrekin ikus-kontaktua ahalbidetzen zuen eremu batean kokatu behar ziren. Kokaleku eta itxuragatik "gatzelua" leku-izena eman diote. Horixe gertatu da Basaluzeko eta Ziordiko dorreekin (azken horretan "telegrafoa" izenez ere ezagutzen da). + guaixe.eus

Gazteek egindako argazkiak Altsasuko lortian ikusgai

Altsasuko Udalaren Gazteria Zerbitzuak Intxostiapunta gazte gunean antolatutako argazki ikastaroaren emaitza da *Fokua jarrita* erakusketa. 10 gazteren 30 bat argazki Altsasuko kultur gunean ikusgai izanen da astelehenetik lastailaren 8ra arte; astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara



Ikastaroan egindako argazkia. UTZITAKOIA

Erritmoa oinarri duen Euskal Herria-Andaluzia elkarrizketa

Berriketan, flamenkoa eta txalaparta uztartzen dituen ikuskizuna gaur, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean.

OLATZAGUTIA

Baten ttakunak. Bestearen takoi hotsa, kajoia eta palmak. Perkusioak eta gitarrak lagunduta. Euskal sustraiak eta Andaluziako flamenkoa. Bi horien arteko elkarrizketarekin osatutako



proiektua da Berriketan. Askoa Etxebarrieta Lasheras, La Pulga, dantzari gasteiztarra da haren arima. Alegria, buleria, tangoak, fandangoa eta hainbat erritmo harturik, goxotasun eta energia handiko ikuskizuna eskaintzen du Berriketan taldeak.

La Pulga dantzariak emanaldian lagun izanen ditu Angel Lopez de Toro (ahotsa), Aitor Escobar (gitarra), Mikel Aveiro eta Adrian Larrañaga (txalaparta) eta Jose Gil (perkusoia) musikariak.



BAZTERRETIK

JOSE LUIS AENSIO

Gazpacho Agridulce

Gazpacho agridulce ez da sukalde experimental batean sorturiko plater berri horietako bat, baina erraz asma daitezke bere bi osagai nagusiak: Andaluzia eta Txina. Gazpacho agridulce hitz jokoak, egilearen barruan elkarrekin bizi diren bi kulturen nahasketa deskribatzen du. Hobe ulertzeko, egilea Quan Zhou dela esango dizuet, itxuraz txinatarra baina izatez andaluziarra den neska. Bere gurusoak gazteak zirela alde egin zuten Txinatik eta Andaluzian bukatu. Bertan, jateke bat zabaldu eta familia osatu zuten. Hiru alaba izan zituzten, Espainiako hegoaldean jaioak hirurak. Quan, ahizpa ertaina dugu.

Marrazteko grinak Interneten bere komiki eta marrazkiak argitaratzeko ausardia eman zion, eta gutxika zale ugari sortu zitzaizkion. Arrakastaren arrazoia ez dakit baina ziur duen berezko umoreak eta kontaktatzen dituen Zhou familiaren inguruko bitxikeriak nolabaiteko pisua izan dutela. Berak oraindik ez zekien, baina bere egoera berdinean jende asko dago, eta ez dira bakarrik etorkinen seme-alabak. Aipatutako dualitateak, kanpotik edo itxuraz txinatarra izatea eta barrutik edo izatez andaluziarra, arrazakeria



zenbait arazo ekarri dizkio. Berak bere burua modu batez ikusten du, baina kanpotik, gizarteak beste modu batez ikusten dugu Quan. Beste kultura batean hazi diren pertsona asko dago gure artean naiz eta gu ez konturatu. Interneteko sare erraldoian ez da erraza ezagutzera ematea; konpetitibitate basatia dago bertan. Ala ere, azkenean bere lanak nolabaiteko ospea lortu zuen eta jarraitzaile taldetxo bat sortu. Ondorioz, medio boteretsuen interesa piztu zuen ohizkoa den bezala eta El Pais egunkariako astekarian argitaratzen hasi zen bere lana (ez paperetan, Interneten oraindik ere).

Azkenik, 2015. urtean, Bizkaiko Astiberri argitaletxeak bere lehen komikia argitaratu zuen, *Gazpacho Agridulce: un cuento chino-andaluz*. Marrazkiaren eta koloreen aldetik ez du asko balio komikiak, baina esan bezala kontakizunek indar ekartzaile boteretsua dute. Ez da marrazkigile ona izan behar komikigile ona izateko (adibide

bikaina dugu Ivá eta bere Makinavaja edo egun hauetan Iruñeako komiki saloian ikus daitekeen Cutlas erakusketa). Lehen liburua hori irakurtzen duenak, zer aurkituko du bertan? Bere biografia bai, baina ez ezazue datuz zipriztinduriko kontakizun aspergarri bat espero.

Adibide bezala, bera taxi batean jaio zen, ospitalerako bidean, bere ahizpa heldua bezala. Bere gurusoak Txinan ezagutu zirenetik Bigarren hezkuntza bukatu inguruko bizi tartea laburbiltzen du bertan. Bigarren zerbakia aste honetan bertan argitaratuko du Asteberrik. Ez dut aukerarik izan oraindik irakurtzeko, baina badakit hiru ahizpen abenturak utzitako puntuan berreskuratzen dituela, beharbada ikuspuntu helduago batetik ikusita. Ahizpa bakoitzak munduaren punta batean bukatu du (Madril, AEB eta Andaluzia, oker ez banago), eta zer gertatu zaien jakiteko irrikan nabil nire alearen zain.

Kantari, dantzari eta txistulariak eskutik Etxarri Aranatz

Udatzen hasierako kultur hitzordu finkoa bihurtu da Etxarrin herriko abesbatzek, Etorkizuna dantza eskolak eta Burundar Txistulariek eskaintzen duten emanaldia. Emanaldiaren hasieran abesbatza txikia ariko da. Helduenak hartuko diete lekukoa. Haien eta txistularien aireak dantzatuko dituzte dantzariak. Baita bestelakoak ere.

Hiru udal Bira-bira kultur programa berriko kide dira

Nafarroako Antzoki Sareko kide diren zazpi udal Bira-bira programa berria sortu dute. Haren bidez arte eszeniko profesionalen eta familia osoarendako euskarazko lanak kultur etxeetan eskainiko dira. Urtean zehar garatuko da programa. Hura sustatu dutenen artean Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Olatzagutia daude. Azken herri horretan

haurrendako euskarazko bi ikuskizun eskainiko dira eta Irurtzunen eta Etxarri Aranatzan bana.

TDiferentzia konpainiaren *Peter Punk* eta Gorakada taldearen *Titirikontu kontari* ikuskizunek osatzen dute programa. Azken horren emanaldia Olatzagutiko kultur etxeak igandean hartuko du, 17:00etan. Hainbat ipuin abiapuntutzat hartu eta hainbat tekniken bidez emanen du Gorakadak. Etxarrin lastailaren 21ean izanen da saio bat.

Bertso eskolan izena emateko epea zabalik dago

Bertso eskolen ikasturtea hasieratu da. Haietan gaitasun ugari trebatu aukera izaten da, esaterako: bat batekorako, iruditegia eta argudioak lantzeko, jendarate interesgarria ezagutzeko eta euskaraz bizi eta harekin jolasteko. Arbizun eta Altsasun daude bertso eskolak. Haietan izena eman nahi duenak: 948 143 747 edo nafarroa@bertsozale.com.



Altsasuko bertsolari gazteak GUAIXE

Haur-liburuetan etxarriarra trebatzen

Galtzagorri elkarteak 9. MarraziOak topaketa antolatu zuen Donostian joan den asteen. 11 ilustratzaile Elena Odriozola eta Gustavo Puerta irakasleekin aritu ziren. Haien artean Anaitz Igoa Goñietxarriarra izan zen, topaketaren berri eman diguna.

ETXARRI ARANATZ

Etxarriarra haur-liburuetan trebatzen

Galtzagorri elkarteak 9. MarraziOak topaketa antolatu zuen Donostian. Joan den asteen 11 ilustratzailek parte hartu zuten. Topaketako gidariak, Elena Odriozola eta Gustavo Puerta, izan ziren izena eman zuten guztien lanak aztertu ondoren parte-hartzaileak aukeratu zituztenak. Haien artean etxarriar bat, Anaitz Igoa Goñi. Topaketaren nondik norakoak kontatu dizkigu etxarriarrak.

Anaitz, sarrera aittuta, bakarren batek ez zen jakinen ilustratzaileak zani. Nundi?

Ilustratzailetako ez det hartzen ne bube gurañiken. Beye egiye esan, asko gustetzen dakit mundu boi. Beti gustetu dakit marraztie, ta artien mundube. Arte grafikoak ein nittuben eta bieldu zugubien etxeko lan bat: gu biziye kontatzie haur beti kontatuko bageno bezela. Hori izendu zan lehenbiziko harremana haurrendako album ilustratu bekin.

Pozik aurreneko lan horrekin?

Bei. Egiye esan pila bat disfrutetu nen. Denborakin quartu neiz oso lan xumie eta xelebriz izendu zala. Egiye esan, oso pozik.



Gustavo Puerta irakaslea azalpenak ematen, Anaitz, ezkerretik lehena. GALTZAGORRI

MarraziOak topaketetaako aukeratura izan zinen, zengati?

Ez dakit, ez dobiet galdetu. Izena eman nen. Ilustraziyuek eta curriculumak bieldu ber zien. Garillen abisatu zubieten hartu zubietela ikastaruako eta, egiye esan, ilusiyo handiye ein zuten. Ilustratzaile ezaunek izan ziniuzkiyen ikaskide: Maite Gurrutxaga, Ainara Azpiazu, Iñaki Martiarena...

Bi. Egiye esan, ez nittuben ezautzen. Netako mundu hau berriye da. Irakaslie Elena Odriozola eta be lanak bei ezautzen nittubela. Ikaskide batek esan

zuten hau, hure eta bestie... ez nen espero yonko zienik. Netako ezezaunek zien. Mundu bau oso berriye da.

Zer da MarraziOak topaketa?

Izendu die bost egun, goiz eta atsalde. Urtero gai bet lantzen da ta aurtengue haurrandako album ilustratubek izen die. Horren inguben aittu ga bost egunek.

Leitzen ez dakiyen haur bet nola "harrapatu". Nola sortu hoiteko bat?

Beste irakaslie Gustavo Puerta zan literaturan aditube da. Biyen

artien bei ilustraziyue bei kontaketa lantzen zan. Nola leitzen ez dakiyen haur beti leitzen yakusten ahal dozun hizkik be, marrazkiyen bides eta zuk lantzen dezun ipuin horren bides aurria-atziako sortzen ttuzun jolas hoik. Netako ikuspuntu berriye zan, oso-oso interesgarriye.

Guai halako libubai gehio errepatuko dozu, ezta?

Bei. Gogotan no ezautzen ez nittuben eta nekin izendu dien hoin lanak ezautzeko. Etxarriko libuteyen, leittu izendu ttut, eta bakit album dexente dela. Bakat gogue pixkeka hartu ta ikusti ta ikesteko.

Topaketa dena jasotzie izendua, o sortzie de tokatu dakizubie?

Biaik egunero, hasieran, filosofia horren inguko teoria puskat ematen zugubien; biain ustez album ilustratu on bat zertan oinarritu ber dan. Gio ariketak bieltzen zuzkigubien. Ariketa hoiten sortze lana zan pentsatzie zer kontatu nehi ziniuben, nola, gio biaikin elkar truketu. Ariketakin aztatzen giñubenien hasten zan ipuintxoi sortzeko marrazketa eta testube sortzen. Zenbeitt teknika yakus duzkigubie.

Haur libubet hartzekuen zer hartu ber diau kontuben?

Biaik hiru puntu esaten zittubien: haurrek ezautu ein ber debie testuben o marrazki bides esaten dana; identifiketu, hau da, beria yaman ber debiela eta, gio, transferentzia puntu bet yon ber zala, zerbeitt erain ber dobiela. Hoik die, geñetik esanda. Ilustraziyue horta yamatia de bei.

Gios oinarri hoikin sortzen jar zuzubien.

Hori zan oinarriye beti. Gio jolasten giñuben kontatu nehi

giñubenakin, o formatuekin, ibiltzen giñuben ilustrazio klasiekin...

Hasieran ziniuzkiyen helburubek, topaketak bete ttu?

Bei. Helburu xumiek zien, baniyuen disfrutetzia ta ikestia niyuen. Hori lortu det.

Ilustraziyuen kontuben trebatzen seitzeko gogos?

Bei, goguek mundu hau ezautzen seitzeko, pila bat. Eindako lanetan biaik esaten zugubien "hau hobetu detteke modu honta o bestia". Egiye esan, gu debi lan hoik hobetzeko, ta batzuk buketzeko de, ze dena despeditzeko betaik ez giñuben uraitzen. Bakarren batek halako topaketan batien parte hartu nehiko balau, non opatu dezake informaziyue? Nei honen berri Olatz Aldasorok pasa zuten. Bia arte munduben badaye. Sakanako Mankomuni-dediek aurtien antolatu zen, Arbizuko Udalakin batia, ilustrazio tailerra Arbizuko libuteyen. Nik sare hortatik tietu izendu det. Galtzagorri elkartien galdetus gio han informaziyue emanen dobie. Ta saltsietu. Gogotan bazau, aldiateti o bestieti, nik uste allatu eitten dazkizula.



Ikasleak ariketa bat egiten. GALTZAGORRI

11 GALDERA



Juakina Zubiria Galartza eta Pili Rellán Bautista, AEK-ko ikasleak. GUAIXE

“Oso ongi egoten da hemen eta euskara asko ikasten da”

Itsasi euskaltegian jarri dugu hitzordua bi euskara ikasleekin. Beste asko bezala astelehenean hasiko dira euskara eskolak jasotzen AEKn, eta hasteko “gogoz” daude. Biek ere euren euskalduntze prozesuaren berri eman digute. Herritarrak euskara ikastera eta haiekin euskaraz egitera animatu dituzte.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

1 AEK-n ikasten segitzeko prest?
Pili. Bai. Oso gustura.
Juakina. Ni ere.

2 Zergatik euskara ikasi?

P. Gero kalean erabiltzeko. Nire umearekin hitz egiteko. Koadrilarekin, Altsasuko jendearekin. Zaila da baina saiatuko gara.

J. Pixka bat gehiago jakiteko. Ez dut hainbeste hitz egiten kalean, egia esan. Baina irakurtzeko eta gauza horiek... bai, oso interesgarria da gehiago jakitea.

3 Zuen inguruan jendeak ulertzen al du zergatik zaudeten euskaratik ikasten?

P. Bai, nire koadrilakoek euskaratik badakite. Ni azkena izan nintzen euskaraz hitz egiten.
J. Bai, soberan. Batzuk badakite eta beste batzuk ez, baina denek ulertzen dute.

4 Eta zuen inguruko norbaitek euskaratik ikasteko pausoa eman du zuek izena eman ondoren? Edo aurretik?

P. Euskaltegian egonda ezagutu dut jendea.
J. Ez dakit horregatik, edo nahi zutelako, baina koadrilako bi mutil joan den urtean hasi ziren.

5 Zein mailatan zaude?

P. Hau hirugarren urtea da. Duela 20 urte AEK-n egon nintzen, beraz, oinarri bat neukan. 2B taldean nago.
J. Ni ere 2B taldean nago.

6 Zer moduzko esperientzia orain arte?

P. Oso ona. Giroa oso ona da eta oso gustura.
J. Hala da.

7 Etxeko lanak dituzue?

P. Normalean, ez. Baina egin behar badugu egingo dugu. Baina normalean, ez.
J. Nik ezta ere.

8 Klaseaz kanpo, euskara erabiltzeko aukerarik baduzue?

P. Gutxi. Saiatu gara baina oso... Koadrilakoek esaten dute, benga, benga... lotsa ematen dit, pixka bat.
J. Ez hain beste. Egia da jende ezagunarekin zailagoa dela ohitura hori puskatzea. Gaztelanitik euskarara pasatzea ez da

erraza, ez duzu ohiturarik. Batzuetan bai.

9 Mintzakide programa ere hor duzue?

P. Ni joaten naiz, ostiralero. Oso gustura.
J. Ez naiz joaten.

EGIA DA JENDE EZAGUNAREKIN ZAILAGOA DELA OHITURA HORI PUSKATZEA. GAZTELANIATIK EUSKARARA PASATZEA EZ DA ERRAZA.

10 Egonen da jendea ostiralean zuen argazkia argitaratua ikusi eta Guaixen zergatik atera zareten galdetuko dizuenik. Zer esanen diezue?

P. AEK-n euskara ikasten nagoelako eta oso gustura nagoelako.
J. Ea etortzen diren haiek ere. Oso ongi pasatzen dugu hemen. Euskara ikasten badute haiek ere Guaixen atarako direla.

11 Eta argazkia ikusteaz aparte elkarrizketa irakurtzen dutenei zer esanen zeniekete?

P. Suposatzen da nirekin euskaraz hitz egingen dutela. Horrela gehiago hitz egiten segituko dugu. Jendeak euskaraz hitz egitea behar dut.

gk
KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
 gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus